



Sakanako Garapen Agentziak e-HIERA proiektu estrategikoa garatzeko 1,2 milioi euro jaso ditu Gobernutik



GUAIXE

Balioen sustapena Sakanan

Aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminazio eza balioak landuko dira festetan, berriz / 2



IV. Ibilgailu klasikoen topaketa antolatu dute bihar Altsasun, lortiaiko erakusketa barne / 17

NUPEk antolatutako herri-lurrei buruzko ikastaroan 45 pertsona bildu dira Lakuntzan / 7

Etxarri Aranatzen trafiko ordenazio berriko aurreneko urratsak egiten hasi da udala / 9



269 korrikalarik osatu zuten Etxarri Aranazko IV. Triku Traila, horietatik 43 sakandarrek / 16

Aralarko Mikel aingeruaren irudia zaharberritu dute eta ostiralean aurkeztu zuten jendaurrera / 22

San Pedroak ospatuko dira Urdiainen, Arruazun, Unanun, Lizarrengon eta Urritzolan / 11-14



Altsasuarrek San Pedro eguna gogoz ospatu zuten atzo, nahiz eta eguraldia trakestu / 13

Aniztasunaren alde, balioen aldarrikapena

Festetan Mank-ek aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminazio ezaren aldeko mezua zabalduko du. Zurrumurruen kontra egin eta pertsona migratu eta errefuxiatuen egoeraz jabetzeko ekimenak izanen dira ere

SAKANA

Anitzartean, kulturartekotasun zerbitzuak sustatuta, aurten ere festetan aniztasunaren berdintasunaren, errespetuaren eta diskriminazio ezaren baloreak zabalduko dira ibarreko festetan. Hirugarren urtea da Sakanako Mankomunitateko zerbitzuak halako kanpaina garatzen duena. Bego Zestau Baraibar teknikariak aurkezpenean esan zuenez, duela bi urte hasitako sentsibilizazio kanpainaren jarraipena da aurtengoa.

Anitzartean, kulturartekotasun zerbitzuko teknikariak azaldu zuenez, kanpainak "elkarrekin harremana duten hiru zati ditu. Eta bakoitzak pankarta bana du". Teknikariak azaldu zuenez, "lan egiten dugu Sakanan bizi diren pertsona guztien elkarbizitza ahalik eta baikorrena izateko, estereotipoak eta aurreiritziak eta halakoak hautsiz". Hori duela bi urte egindako pankartan maite dituzten lau balioak (goian aipatuak) jarri zituzten eta horiek "bultzatzen" segituko du Mank-ek.

Aurtengo kanpaina

Udaletxeetako balkoietan, jai giroan, festetan, maite dut aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminazio eza dioen pan-



Sentsibilizazio kanpainaren sustatzaileetako batzuk.

karta jartzea. Aurreko urteetan etxajua piztu behar zutenei lelo bereko kamixeta jartzea proposatu zitzairen, baina aurten pegatinak eskainiko zaizkie. "Pegatinak euskaraz eta gaztelaniaz daude. Zinegotziren batzuk gaztelaniaz eskatu zituzten ere, eta aniztasun horri erantzunez egin ditugu".

Balore horiek sustatzen dituzten pegatinak festetan jende gehien mugitzen den tokietan jarriko dituzte. Sakanako sei hizkuntza "esanguratsuenetan" daude: euskara, gaztelania, ara-

biera, wolofera, errumaniera eta bulgariera.

Zerbitzuak zurrumurruen kontra aurten abiatutako estrategiarekin lotura du pegatinak. Horregatik maitatutako lau balioen azpian honakoa irakur liteke: zurrumuru jasari, baloreak aterki.

Zestauk azaldu zuenez, aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminazio eza "zurrumurruen eragin kaltegarri eta ezkorrei aurre egiteko erabil ditzakegu". Zurrumurruez Zestauk esan zuen: "pertsona, talde

edo gertakizun baten inguruko hizkera ezkorra, aurreiritzi eta estereotipoz josia eta betea dagoena. Normalean oinarri sendorik eta zientifikorik ez duena." Zurrumurruek elkarbizitza otopatzen dutela gaztigatu zuten. "Lapurrak ez dira pateratan heldu, ibilbide aberatsagoa dute. Lapurrak ez dira ez beltzak, ez etorkinak, ez pobreak. Gehiago dira, bertakoak, txuriak eta aberatsak".

Atzera kontua: 87 egun

Errefuxiatuak eta migratuak ongi etorriak direla esanez udal-letan pankarta jartzeko proposamena ere egin zuten zerbitzuek. "Adierazi nahian herria prest dagoela errefuxiatuak eta migratuak hartzeko".

Pankarta hori ez bada, atzera kontu bat duen pankarta jartzea proposatuko zaie udalei. 2015ean Europako Batasunak 182.504 errefuxiatu hartzeko konpromisoa hartu zuen, Espainiak 17.337 "eta %5 ekarri du bakarrik" eta Nafarroak 300 pertsona ekartzeko konpromisoa hartu zuen eta "gaur egun 35 pertsona daude bakarrik". Zestauk esan duenez "inork ez du konpromisorik bete eta irailaren 26an bukatzen da". Betetzen ez duenak isuna ordaindu beharko du, "eta horretan geldituko da hau ere". Atzera kontua duen pankarta, beraz, jakinarazteko eta salatzeke da.

Anitzartean, kulturartekotasun zerbitzuko teknikariak guztiaren zergatia azaldu zuen: "migratzea eskubide bat da, ez delitu bat. Mundua pertsona guztiena delako. Denok dugulako kabida. Denak izan gaitezkeelako edozein arrazoiengatik migratzaile eta, zeinek daki, errefuxiatu ere bai. Eta hurrengoak gu izan gaitezkeelako".

Aldi berean, migrazio kontuetan egiten ari diren "politika hiltzaileak" salatu nahi dira ekimen horiekin. Sartzeko baimenak "tantaka ematen diren bitartean, harresiak jasotzeko sekulako prestutasuna eta dirutza dago". Zestauk gogorarazi zuen 2000. urtetik Mediterraneoan "bizia salbatu nahian" 32.000 pertsona hil direla. Anitzartean, kulturartekotasun zerbitzuak eta Mank-ek berak beste aldera ezin zutela begiratu esan zuen Zestauk.

Sakana Harrera Harana

Aurten sortu da plataforma. Migratuei eta errefuxiatuei ongi etorria ematen die. Talde berriaren egitekoa da migratu eta errefuxiatuen egoera zein den ezagutaraztea. Eta haiek bizi dituzten egoerak ere salatuko ditu plataformak.

Errefuxiatu eremuetan boluntario lanean aritutako sakandarrek osatu dute plataforma. Han ateratako argazkiekin herrietako festetan erakusketa jartzen ari dira. Haiekin harremanetan jartzeko bi bide daude: sakanaharreraharana@gmail.com e-posta edo Facebooken duten profila.

Bestela, gaur, 19:00etan, Altsasuko Gure Etxea eraikinean bilera izanen dute eta atek zabalik izanen dituzte.

Ostiralero

SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Anitzartea zerbitzuaren sentsibilizazio kanpaina
- Hatortxu Rock, hilabete baten falta
- Jaibus zerbitzuan aldaketak

107.3 FM

beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE

Altsasun errefuxiatuen harrera kudeatzeko konpromisoa

Sakana Harrera Harana ekimenak aurkeztutako mozioa bere egin du Altsasuko Udaleko bilkurak

ALTSASU

Sortu berri den Sakana Harrera Harana taldeak errefuxiatuen inguruko mozioak aurkeztuko ditu udaletan. Herenegun Altsasuko Udalak hura onartzea erabaki zuen Geroa Bairen, EH Bilduren, PSNren eta Goazen Altsasuren aldeko botoekin eta UPNren abstentzioarekin.

Onartutako idatzian jasotzen denez, Altsasuko Udalak, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, pertsona errefuxiatuen harrera kudeatzeko konpromisoa hartzen du. "Hori dela eta, denbora zehatz batez haien etxebizitza gastuak bere gain hartzeko prest" egonen litzateke udala. Errefuxiatuak Altsasun erroldatu ondoren, "haien asistentzia beharrak gainontzeko herritarrenak bezalaxe, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak hartuko ditu bere gain".

Horrekin batera, Altsasuko Udalak "hiritar agiria egiteko eta pertsona horiek gure herriko biztanle gisa tratatzeko prest dago, dagozkien eskubideak bermatuz eta udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztietarako sarrera ziurtatuz".

Udalaren iritzi "Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak pertsona hauek guztiak behar bezala artatzeko prestatuak daude, baina horrela ez balitz, zerbitzu horietako langileei errealitate berri horri aurre egiteko prestakuntza berezia eman edota finantzatzeko" prest azaldu da.

Altsasuko udal arduradunak, "beste udalekin batera, Nafarroako Gobernuarekin lan egiteko prest" daude "pertsona guztiendako errenta bermatua lortzearen alde eta ondorioz, Gizarte Lan Babestuaren programan sartzeko".

Pertsona migratzaileei eta errefuxiatuei orientazioa eskainiko die Altsasuko Udalak, "gizarte mugimenduaren bidez biltzeko guneak, laguntza eta elkartasuna eskainiz, herrian bizi diren pertsonekin". Aldi berean "udal guztiendako arrazakeriaren kontrako perspektiba baten ikuspuntutik harrera-

ko protokoloak" sortzea eskatzen da, "udal guztiak abiapuntu bera izateko". Azkenik, Altsasuko Udalak onartutako idatzia Espainiako Gobernuari "presioa egitea" eskatzen du, "estatura sartzeko eta irteteko bideak errazteko baita pertsona errefuxiatu egoera lortzeko prozesua azkartzeko ere".

Atzera kontua

Mozioarekin ados egonda ere PSNtik proposatu zen Ongizate Batzordean mozioa garatzeko protokoloa lantzea eta onartu egin zen. Batzorde berean ere oniritzia eman zitzaion udal-txean pankarta bat jartzeko. Horretan atzera kontu batek adieraziko du zenbat egun falta diren irailaren 26rako. Egundorretan despeditzen da Europako Batasunak ezarritako errefuxiatuko kopurua jasotzeko epea. Horrekin batera, Nafarroan hartzeko falta diren pertsonen kopurua ere agertuko da. Zehazki bi kopuru hauek ageriko dira gaur atzera kontu horretan: 87 egun falta direla aipatu datara irteteko eta Nafarroak oraindik 265 errefuxiatu hartzea falta dela ere.

Elikagai bilketa bihar

Greziako errefuxiatu eremuetan lan egiten du Zaporeak gobernuz kanpoko erakundeak. Haien egitekoa migratuei eta errefuxiatuei jatekoa ematea da. Zaporeak-eko kideek lan horretan segitzeko laguntza behar dute eta horregatik bihar elikagai bilketa egiten da Altsasu bi tokitan: Eroslen, 9:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, eta Eroskin, 9:00etatik 21:00etara. Barazki, lekale, eta arrain kontserbekin batera, arroza, pasta eta olioak jaso nahi dituzte.



Sakanako Garapen Agentziako Aintzane Iriberrri azalpenak ematen aurreko bilera batean.

Proiektu estrategiko bat garatzeko 1,2 milioi

Energia biltegitratzea helburu du Sakanako Garapen Agentziak sustatutako e-HIERA proiektu estrategikoak, zeinetan sei partaideetatik lau ibarreko enpresak diren. Nafarroako Gobernuaren ikerketa eta garapenerako diru-laguntza jaso du

SAKANAKO

Sakanako Plan Estrategikoaren barruan, Sakanako Garapen Agentziak (SGA) azken urtea eskualde espezializazio estrategiaren definizioan eman du. Azterketa horrek erakutsi du Sakanan energia dela landu daitekeen aukeretakoa bat. Eta, hain zuzen ere, e-HIERA proiektu estrategikoa energia arlora bideratuta dago.

SGAko Aintzane Iriberrri Berrostegetak esan digunez, "e-HIERA proiektu estrategikoaren helburua bi produktu berri garatzea da, biak ere energia biltegitratzera, edo zehazkiago, energiaren biltegitratze banatuan oinarritutako mikro-sareen merkatura iristera bideratuak". Batetik, lerro-turbina eta, bestetik, kontrol sistema. Iriberrri: "konturatu gara ur-punpatze sistema energia gordetzeko interesgarria dela eta etorkizun handia duela". Ohiko baterien aldean eraginkorragoa litzatekeela azaldu digu Iriberrri.

Merkaturatzea helburu

e-HIERAk proiektu estrategiko izendapena du "merkatu batean inpaktu handia izan dezakeelako eta dagoen teknologiaren abantailak handitu egiten dituelako". Hala aitortu dio ere Nafarroako Gobernuak 1,2 milioiko diru-laguntza emanez.

Proiektua irailan hasi eta 2019ko azaroan despedituko da. Hiru urte horietan energia ponpaketa banatuaren bidezko biltegitratzea garatuko dute. "Horrek nabarmen handituko du mikro sareetan oinarritutako proiektuen errentagarritasuna", zehaztu du Iriberrri. Eta azaldu digu mikro sareak energia elektrikoa hornitzeko sareak direla. "Sare horrek energia sortu eta kon-

tsumitu egiten du (batez ere jatorri berriztagarria duena) eta betidanik, baterietan biltegitratu da".

Proiektuan Sakanako lau enpresek parte hartuko dute. Lidergoa Esekik izanen du eta bera arduratuko da mikro-sareen kudeaketaz. Iradi ingeniariak lerro-turbina diseinatuko du eta garatzeaz Pergmasa eta Arania tailerrak arduratuko dira. Azken horrek ere lerro-turbinak egiten ditu. Energia berriztagarrien garapenean aditua den Cener teknologia zentroaren laguntza izanen dute. Goienarren Nafarrokoop zerbitzu kooperatibak merkaturatu elektrikoa sartzeko esperientzia emanen du eta Nilsa enpresa publikoak mikro-sareak ezartzeko aukera dauden tokien inguruko aholkuak eta negozio-ereduaren aplikazioaren gainean aholkatuko du. Iriberrri esan digunez, "proiektu horrekin Sakanako enpresa parte-hartzaileen espezializazioa handituko egiten da".

**GAUZAK ONGI,
LIZARRAGAKO
MIKROSAREA
LITZATEKE PROBA
LEKUA**



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Ilargiak aurkitu arte

Aurreko asteko Guaixen sanjoanek eta herrietako festak iragartzen ikusita, pentsatu nuen denboraren gupilak ez duela atzera-bueltarik eta bete-betea sarturik gaudela udaldiko sasoirik gogozkoenean. Azkenean, oporraldia!

Egunak nabarmen luzatzen diren honetan, norberaren

bizkarrean zamatzen dira lan-kargaren nekeak eta bizitzaren estresaren aztoramenak. Baina, ailegatu da eguneko eta gaueko orduak nahierara moldatzeko garaia. Bakoitzak bere une goxoak izanen ditu opor-egun horiek irudikatzen gogoan. Eguzkiaren epela, larrua erre gabe. Itsasoaren gazia,

jendetzaren artean ito gabe. Garagardo freskoa, tabernako lurrin-kiratsik gabe. Seme-alabekin patxadan jolastea, egin beharrik izan gabe. Maite duzun horrekin goxo afaldu ondoren, patxadan egotea gaueko orduak aurrera doazelako kezkarik gabe. Azkenean, norberarendako denbora! Lehen ere, denbora izan baguenen, baina

agendan sartuta genuen. Oporretan ez. Oporretan, denbora norberarena da, jakina, agendan sartzen ez bada.

Batzuetan gertatu izan zait oporretako denbora hori ere agendaren barnean sartu behar izateko premia, pentsatuz, egunez egun eta orduz ordu planifikatuz gero, probetxu hobea aterako niela oporrei. Baina aurten ez,

aurtengo oporraldian denbora ez dut agendan sartuko; aurten niretzat gordeko dut. Sabinaren abesti ezagunak dioten bezala, ilargiak aurkitu arte: *y empecé esta canción / en el cuarto donde aquella vez te quitaba la ropa / y nos dieron las diez y las once, las doce y la una / y las dos y las tres / y desnudos al amanecer nos encontró la luna.*

HARA ZER DIEN

11 arrazoi benetazko lotsa sentzitzeko

SAKANAKO INMIGRAZIO ZERBITZUA

- Nafarroa harrera lurraldea izan da askotan; guri ere harrera egin digute sarritan. Oraingoan, 300 pertsona errefuxiatu hartzeko konpromisoa ez da gutxiengoan ere bete, 35 pertsona soilik hartu baititu Nafarroak. Hau lotsa!

-Mediterraneoan hilerri erraldoia bihurtu da, eta

badirudi berdin zaigula. Lotsa!

- Europako Elkarteko estatuek, egoera honi aurre egin ordez, harresiak eta oztupo hiltzaileak jarri besterik ez dute egiten. Lotsa! Horretarako milaka milioi euro gastatu behar badute ere.

- Harresi horiek gainditzeko bizitza jokatzu pasatzea lortzen dutenek,

CIES delako "gartzeletan" arrazakeria eta bazterkeria pairatzen dute, Giza Eskubideen Europa hipokrita honetan. Lotsa!

- Estatu Espainiarrak bi urteko epean 17.337 pertsona hartzeko konpromisoa hartu zuen, eta %5 besterik ez du birkokatu. Lotsa!

Lotsamangarritasun gehiago? Bada bai...

- "Itzulketak beroan", profil etnikoaren araberrako

nortasun kontrolak, arrazakeria instituzionala...

- Europar Batasuna eta Turkiaren arteko akordioa, Nazioarteko Zuzenbidea urratzen duena.

- Europako hainbat herrialdeetan piztu diren jarrera arrazista eta xenofoboaren kontra sortutako herri mugimenduen aldarrikapenei kasu zipitzik ere ez egitea.

- Tarajal-eko hilketa masiboa.

- Ceuta eta Melillako harresien altxatze hiltzailea.

- Eta falta zena! Asturiasko Printzearen Saria Europar Batasunari ematea. Nungo erakundeak ez diren gai izan erantzun solidario eta humanitarioa emateko, haren lurraldeko hainbat eta hainbat mugetan, animalia moduan erdi-bizi, edota superbizitzen saiatzen diren milaka pertsonen egoera jasanezinari. (Osoa: guaixe.eus).

BARRUTIK

Zementu fabrikak, zernahi errausteko gailuak

HIRU MUGAK BATERA PLATAFORMA

Arganda del Rey herrian bada oso toxikoa den urmaela. Urmael horrek, 20 urtez jaso zituen industriaren erabilitako olioak fintzen zituen Picsa taldeko lantegi baten etengabeko isuriak.

Aurreko hamarkadan bi pertsona hil ziren ur horietan bainatzeagatik eta isurien aurretik ahateak eta kaiokak ugariak ziren uretan, egun berehala hiltzen dira ur horiekin kontaktua izaten duten hegaziak.

Madrileko Komunitateak urmaela erosi zuen, arazo handi horri aurre egin ahal izateko. Zementu-fabriketan erraustearen aurkako plataformetako kideek txosten bat eskatu zioten Madrileko Ingurumen Kontseilaritzari,

urmaeletik ateratako materialak nora eramango zituzten jakiteko. Erantzuna: lanak martxan daude eta ponpatze bidez ateratzen da mundrunetzatutako materiala, ondoren zementu-fabriketako clinker labeetan erregai moduan erabiltzeko energia, balorizazio gisa. Honek

agerian uzten du zementu-fabrikek errentagarria zaien edozer erreko dutela administrazioen aldetik baimena lortzen duten bitartean, eta hondakinak erraustea edo ez tokiko herritarrek egingo duten borrokaren baitan dagoela. (Osoa: guaixe.eus).

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gixane Andueza Gollokoetxea
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
krolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Ruben Imaz Alcaide
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Jaibus zerbitzuaren antolatzaileek "balorazio positiboa" egin dute. Aurten 20-21 zerbitzu egun izanen dituela jakinarazi dute.

Jaibus zerbitzuan aldaketak, bihartik

Adin txikioek gurasoen baimenaz zerbitzua hartzen dutela frogatzeko Jaibus karneta erakutsi beharko dute. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio Zerbitzuek 15 eta 17 urte arteko gazteei zuzendutako neurria da indarrean jarriko dena

SAKANA

Aurten 17. urtea egingen du mar-txan Jaibus zerbitzuak, gauez jende asko biltzen den ospakizunetan jendea eraman eta ekar-tzen duen gaueko autobus zer-bitzuak. Sakanako hiru Oinar-rizko Gizarte Zerbitzuen Man-komunitateetako Prebentzio Programek sustatzen dute pro-grama, Sakanako Mankomuni-tateak ordaintzen duena eta Osasun Departamentuaren di-ru-laguntza duena.

Eneka Irizar teknikariak azal-du duenez, "urteak pasa ahala erabiltzaileen adina gora egiten ari da". Jakitun dira gazte bat-zuk ospakizunetara autoan joan eta Jaibusean bueltatzen direla. Baina Irizarrek azaldu duenez, "geroz eta gazteagoak izanik hasten direnak Jaibus lehen aldiz erabiltzen (13 urteko gutxi batzuk eta 14-15 urtekoak). Hori Jaibusaren helburuekin kon-trajarria dago".

Antolatzaileen ustez, Jaibus a-da adin horietako gaztetxoek

zuzendutako baliabidea. Horre-gatik bihartik aurrera, Jaibus a-erabili nahi duten 15, 16 eta 17 urteko gazteek familiaren bai-mena beharko dute.

Baimena

15, 16 eta 17 urteko gaztetxoek gurasoei edo legezko tutoreei zuzendutako informazio gutuna eta baimena orria bidali diete. Han azaldu diete, seme-alabei Jaibus erabiltzeko baimena ematen badiete Oinarrizko Gi-zarte Zerbitzuen egoitzan txar-tel bat egin beharko dutela eta Jaibus erabiltzen duen bakoit-zean gaztetxoak txartel hori erakutsi beharko duela. 537 gu-tun bidali ziren eta 364 txartel egin dituzte. Eta, nahi duenak, oraindik ere egiteko aukera iza-nen du.

Jaibuseko antolatzaileek ba-dakite "zerbitzua, batzuetan, festetan gauez ateratzen hasteko markoa izaten dela, eta gurasoek baliabidea, etxera itzultzeko ordutegi zehatza ezartzen duen

neurrian, testuinguru babesle-tzat jotzeaz aparte, ingurune kontrolatutzat ere hartzen du-tela".

Baina "errealitatea, askotan, guztiz bestelakoa izaten da" Iri-zarrek azaldu duenez: "frogatu-ta dago kontsumo-inguruneetan egoteak kontsumitzeko aukera handitzen duela, eta adingabeez hitz egiten ari garenez, kontsu-mo horrek osasunari dakartzkion arriskuak nabarmen handiagoak dira". Horregatik, oharra egin du teknikariak: "hori guztia jakinik, familia bakoitzak era-baki ahalko du, guk ezarritako adinez kanpo, bere seme-alabei baimena egin hala ez. Erantzuz-kizuna, beti, familiena da".

Adin muga jartzearena anto-latzaileen Jaibusaren helburuez gogoeta egin ondoren hartutako erabakia izan da. "Gainera, Osa-sun Departamentuak ere alda-keta egiteko gomendatu digu. Eta, jada, aldaketa hori egiten ari da Nafarroako eskualde gehie-netan".

Jaibus, prebentzioa helburu

Jaibus auto-istripuak prebenitzeko programa bat da, eta arrisku handiko uneetan funtzionatzen du, hain zuzen ere, herriko festetako ordu txikietan nahiz jende ugari biltzen duten gaueko ekitaldietan. Bere helburuak dira: jaietatik joan etorri ziurra egitea, zirkulazio istripu gutxiago gertatzea eta gazteek ohartaraztea nork bere burua kontrolatzeaz duten erantzukizunaz: bai kontsumitzeari dagokionez bai kontsumoaren ondorengo jokabideari dagokionez.

Teknikariak azpimarratu nahi izan dute Jaibus a- ez dela herriko festak bulkatzeko zerbitzua, "demandaren atzetik gabilta, jende asko elkartzen denetan dago".

Zerbitzuak harrera ona

Teknikariak Jaibusarena "arrakasta handia duen programa" dela esan dute. Eta horren adibide diren datuak eman dituzte. 2000. urtean 7 festetan 2141 erabiltzaile izan zituen, zerbitzuko bi autobusekin. 2.016. urtean 19 zerbitzu eta 7996 erabiltzaile izatera pasatu da, eta 2,3 eta 4 autobus egon dira festaren arabera. Bidai bakoitzak 1,5 euro balio ditu. Argi utzi dute ez dela soilik gazteendako zerbitzu bat eta helduek ere erabili dezaketela, autoa hartzeko arriskua saihestuz.

Arbizuk eskola berria izanen du 2018-2019 ikasturterako

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak hartuko ditu. Akerruntza kalean egonen da

ARBIZU

Arbizuko eskola publikoak Haur eta Lehen Hezkuntzako ziklo osoa eskaintzeko legezko bete beharrak betetzen ez duen Nafarroako ikastetxe bakarra da. Arbizuko Udalak, Hezkuntza Departamentuarekin batera, egungo eraikinak eskaini zitza-keen aukera guztiak aztertu ondoren, "ikastetxe berria egitea beste aukerarik ez zegoela on-dorioztatu zen", esan du Karme-le Marañon Chasco alkatea.

Hezkuntza Departamentutik Arbizuko Udalari jakinarazi zioten garagarrierako 4.000 me-tro karratuko lursail egokia eman ez gero bera prest zegoela gastuak bere gain hartzeko. Uda-lak halakorik ez zuen, baina lau kokaleku aztertu zituzten: ki-roldegi ondoan, jubilatutako elkar-tearen atzeko aldean, haur es-kola ondoko belardian eta horren parean, Leziza ubeldearen bes-taldean, Akerrauntza kalearen akaberan. Azken horren alde egin dute.

Eskola berria jasotzeko lurra eskuratu eta urbanizatzeko lur-jabeekin akordioa lortu dute. Arbizuko Udalak aurki inguru hori urbanizatzeko lanak ema-tekto deialdia egingen du. He-zkuntza Departamentuaren asmoa da lanei udazkenean ekitea ikas-tetxeko lanak 2018ko udarako despedituak egoteko. 2018-2019 ikasturtean eskola berrian ha-siko lukete ikasleak. Arbizuko alkateak jakinarazi digunez, energia kontsumo txikia izateko irizpideak hartuko dira eskola-ren eraikuntzan kontutan.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Ezkerretik: Luis Martil, Lujan Lopetegi, Luis Sarasola, Fernando Alvarez, Carmen Cruz, Iosu Maestre eta Jaquin Osinaga. UTZIA

Odol-emaile egiteko eskaera irurtzundarrei

Zortzi odol-emaiaren eskuzabaltasuna eskertzeko igandean Irurtzango emaielen festa ospatu zen. Aitortza egitearekin batera, Adona elkarteko ordezkariak herritarrei, eta gazteei bereziki, zuzenduta odol-emaile egiteko deia egin zien

IRURTZUN

Irurtzango odol-emaielen festa ospatu zen igandean. Nafarroako odol-emaielen elkarteko, Adonako zuzendaritzako Fernando Alvarez bertan zela egin zen ospakizuna. Alvarezek odola ematea elkartasun ekintza dela azaldu zuen, "jende askoren osasunean hainbat modutan lagundu dezakeelako". Eta "aldamenean ditugunak, gazteak, batez ere" odol-emaile egitera animatu behar ditugula esan zuen. Uda garaian ere odola beharrezkoa dela eta hura emateari ez uzteko eskatu zuen.

Omenaldien garaian, odola ehun alditan emateagatik urrezko domina bikoitza jaso zuen Jose Joaquin Osinaga Uzadok. 50 alditan odola emateagatik urrezko domina eskuratu zuten Luis Martil Marinek eta Sergio Recalde Maestrek. 25 alditan ematen dutenen zilarrezko domina Iñaki Arroki Larraioz, Marisol Galarza Larraioz, Patxi Legarra Zubiria, Lujan Lopete-

gi Larraioz eta Iosu Maestre Bellorendako izan ziren.

Datuak

Irurtzunen 244 odol-emaile daude eta osasun kontuengatik edo bestelako arrazoiengatik haie-tatik 74k eman zuten odola joan den urtean. 124 alditan egin zuten. 2015ean autobusa beste behin etorriko zenez 201 odol emate egin zituzten. 2016 emateetatik 119 odol emate normalak izan ziren, 4 aferesis prozesuaren bidezkoa eta beste bat autotransfusioa izan zen. Egindako 124 odol-emateetatik 33 atzera bota ziren 2016an (29 2015ean). Irurtzundarrek, bestalde, 66 odol-emate egin zituzten herrira etorritako autobusean eta 58 beste emate tokietan. Joan den urtean lau odol-emaile berri izan ziren Irurtzunen, 2015ean 23 izan ziren.

Odol-emaile izan nahi duenak herriz-herriz ibiltzen den auto-hemoteka edo autobusera hurbiltzea besterik ez du eta han ar-

gibide guztiak emanen dizkiote mediku eta erizainek.

Autobusaren egutegia

Sakanara hurrengo datetan etorriko da auto-hemoteka edo odola emateko autobusa. Jardun horren inguruko informazio guztia www.adona.es web gunean dago.

Garilak 19, asteazkena
• Etxarri, 17:00-20:30.

Garilak 27, osteguna
• Etxarri, 17:00-20:30.

Agorrilak 9, asteazkena
• Ziordia, 19:30-20:30.

Agorrilak 16, asteazken
• Irurtzun, 16:45-20:30.



OLATZAGUTIKO UDALA

Ostadar koloreko zebrabidea

Herenegun LGTBI, hau da, lesbiana, gay, transgenero, bixesual eta intersexualen nazioarteko eguna izan zen. Hori dela eta, Udan Euskaraz aialdi programan lanketa berezia egin zuten. Hura despeditzeko Kale Nagusian, posta bulegoaren parean, dagoen zebrabidea ostadar kolorez margotu zuten aialdi programan ari diren gaztetxoek herenegun.



NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

70 ikasle landareekin ikertzen

Iñigo Aritza ikastola eta Zelandi eskola publikoko 70 ikaslek Nafarroako Unibertsitate Publikoko Natura Ingurunearen Zientzia Departamentuak antolatutako zientzia-dibulgazio jardueraren batean hartu zuten parte. Landareak eta ekosistemak izeneko jarduerarekin, dauden ekosistema desberdinak eta horietan bizi diren landareak ezagutu zituzten ikasleek.

Arkitektura-trabarik gabe hasiko dira kurtsoa Olatzagutian

Domingo Bados eskola publikoan, gauzak ongi, udan lanean izanen dira kisugileak. Eraikinaren arkitektura-trabak kentzeko azkeneko lanak eginen dituzte. Mikel Azkargorta Boal alkateak azaldu digunez, "hiru arranpa eginen dira. Bata, psikomotrizitate gelara eraikinaren kanpotik sartzeko, ate berri bat

zabaltzea eskatuko duena". Beste arranpetako bat frontoiarekin lotuko da eta frontoiaren eta areto futbolero pistaren artean egonen da bestea.

Lanak egiteko enpresa interesatuei gaur bukatzen zaie eskaintzak egiteko epea. Lanek 37.344,91 euroko aurrekontua dute, BEZ kanpo. Udalak lan hori egiteko Hezkuntza Departamentuaren %65eko diru laguntza jasoko du. Hala despedituko da hainbat urteko plana.



Herri-lurren inguruko uda-ikastaroa Lakuntzako kultur etxean egin zen. Antolatzaileak gustura egon zirela azaldu ziguten.

Komunalak garapen motor gisa aztertuta

NUPEk herri-lurrei buruz antolatutako uda-ikastaroan 45 bat pertsonen parte hartu dute. Mexiko eta estatuko unibertsitateetako ordezkariekin batera, administrazioetakoak eta herritarrak izan dira, "elkarrizketa maila oneko" saioetan

LAKUNTZA

Unibertsitateetako, administrazioetako eta herrietako 45 bat pertsona elkartu dira bi egunez Lakuntzan herri-lurrei, komunalei buruz hitz egiteko, Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) antolatutako *Herri-lur eta herri-basoen itzulera. Historia eta esperientzia naturaren maneian* uda ikastaroan izan da. "Parte-hartzaileen aniztasuna aberasgarria" izan dela esan digu ikastaroaren zuzendaritzan aritu den Jose Migel Lana Berasain, NUPko Ekonomia Departamentuko Historia eta Ekonomia Erakundeak arloko irakasle titularra.

Elinor Ostromek 2009an Ekonomiaren Nobel Saria jaso zuen eta merkatuaren bidezko jabetza pribatuaren eta estatuaren jabetzaren artean komunalak "hirugarren bide" gisa ikusi zituen. Komunitate "barrutik" eta herritik, "behetik" egin daitekeenaren eredu Lana irakasleak azaldu digunez. "Haren itzul-

tzaile Leticia Merino Perez mexikarrak gustu handiz ikusi du Europan baloratzen dela eta etorkizuna duela. Izan ere, herri-lurrek kanpoan interesa pizten dute", gaineratu du irakasleak, "tradizioa eta baliabideen banaketa zuzen eta parte-hartzailea eskaintzen duen formula delako".

Atzerriko esperientziak

Horren adibide gisa jarri digu joan den mendeko 80-90eko hamarkadetatik nazioarteko agentzietan emandako jarrera aldaketa. "Ordura arte herrialdeetan baliabideak inbertitzen zitzuten baina ez zen emaitzik izaten. Aldaketa egin eta jendea entzun, informazioa, trebakuntza eman eta haiek kudeatzera pasa ziren". Cordobako M^a del Mar Serranok Hego Amerikako hiru adibideren berri eman ditu jardunaldietan: "herritarrek beraiek parte hartzen dute euren garapenean. Emaizta handiak ditu, herritarrei

konfiantza ematen dielako. Konponbidea ez datorrelako goitik".

Lana irakasleak hain zuzen ere konfiantzaren ideia "gakoa" dela azpimarratu du. "Norberarengan konfiantza eta elkarrekin. Elkartasun sareak izanik kooperazioa handitu egiten da". Berak herri lurak tresna gisa ikusten ditu, "tradizioa mantendu eta eskualdeko jendearen eta ekologiaren garapena lortzeko proiektuak eraikiz". Aralarko Elkarrekin mendiko lurraren jabetza osoa berreskuratuz, Guardetxeko proiektua litzateke horren adibide.

Elkarlana

NUPEko irakasleak jakinarazi digu uda ikastaroaren ernamuna joan den urtean Altsasun izan zen *Komunala XXI. mendean* jardunaldian izan zela. Lana bera han izan zen eta Sakanako Garapen Agentziako kideen bidez Aralarko Elkarrekin asmoen berri jaso zuen. Herri-lurak diren "garapen motor" horien

inguruko uda ikastaroa egiteko aukera atera eta batzuen nahiak eta besteen gogoak bat egin zuten.

Lana irakasleak, hala ere, egoki ikusiko luke "komunalean inplikaturako hitz egiteko foro bat aldi behin elkartzea; esperientzia partekatu, egoera berean daudenen arteko sareak sortzeko eta Nafarroa, estatua edo Europaren aurrean, goiko botereen aurrean, hizketakide bihurtzeko". Puntu eta interes komunak indartsu egingen litzakeela gaineratu du. Bera aste honetakoa "errepikatzen prest" azaldu da.

Lotura-gune eta partekatzea

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari Isabel Elizalde ikastaroaren hasieran nabarmendu zuen herrietako herri-lurrek Nafarroan duten garrantzia. "Belaunaldi askori jatekoa eta bizimodua eman" dietela gogorarazi zuen.

Elizalde komunalen "aprobatxamenduak antolatzeko eta aprobatxamenduari muga jartzeko herritarren lotura-gune dira". Kontseilariaren iritziz lotura hori denborarekin hobetzen joan da "baliabidearen baldintzak hobetzeko neurriak hartuz". Komunalak partekatzea herri batzuk besteekin lotzeko balio izan dutela nabarmendu zuen ere Elizalde. Kontseilariaren esanetan, "bide horretan herriak ez ziren bakarrik egon, Nafarroako Erreinu eta Foru Diputazioko agintarien babesa eta erabileren fiskalizazioa izan baitzuten. Nafarroako Gobernuak gauza bera egiten duela azaldu zuen, "ikuspegi desberdinetatik elkarrekin eraikitzean baidatza". Landa eremuarendako baliabide garrantzitsua dela esanez despiditu zen.

Hiru lan egitea aurreikusi du Lizarrengoko Kontzejuak

Kanpo santua handitu, haurrendako jolas parkea jarri eta kontzeju etxeko ganboikoa egokitu

LIZARRAGABENGOA

Nafarroako Gobernuaren erabaki askeko funtsetik Lizarragabengoako Kontzejuak 20.545 euro jasoko ditu. Horiek hiru lan egitea bideratuko dituztela azaldu digu Jose Manuel Garmendia Lakuntza kontzeju-buruak. Batetik, kanpo santua 39 metro karratutan handitu nahi dute eta 7.000 bat euro bideratuko dituzte lan horietara. Bestetik, elizaren aurreko aldean haurrendako jolas parkea jarriko dute. Hartara 8.000 bat euro bideratuko dituzte.

Eta, azkenik, Bordatxo elkarrekin eta kontzeju etxea hartzen duen eraikineko ganboikoaren konponketa egingen dute. Garmendiak azaldu digunez, "duela 20 urte obra egin zenean, hura egin gabe gelditu zen". Txukuntzeko garaia heldu zaio, beraz, ganboikoari. Argiteria instalazioa eta lurra leundu eta pinkia ematea da aurreikusia dutena. Behin txukunduta ganboikoa haurrek erabiltzeko edo ekitaldi edo hizaldietarako erabiltzeko aukera izanen litzatekeela aurreratu digu ere.

Lan guztiak urtea despiditu aurretik egin beharko dituzte, Nafarroako Gobernuari laguntzarako paperak aurkezteko.

Ondo pasa festetan

HARATEGIA

López de Goykoatxea

CARNICERIA

948 562 157

Elizazpi 12 · Urdiain

Kaluxa

TABERNA · JATETXEA

Asteburuko menua

Festetako menu berezia

Astero aldatzen dugu

Ondo pasa festetan

· 948 469 291 ·

URDIAIN

Altsasuk mustuko ditu Ur Festa Goxoak

Gozamenez programak antolatuta, asteartean, Altsasuko Dantzaleku igerilekuan 21:00etatik aurrera: bainua eta ur-jokoak, ogitartekoa eta freskagarria, aniztasun funtzionala dutenen dantza ikuskizuna, Selektah Step dj-a eta txokolatedun fruta

SAKANA

Sakanako Gozamenez Batzordeak antolatuta, aurten ere Ur Festa Goxoekin bikain pasatzeko aukera izango dute gazteek Sakanan. Zehazki, bost festa izanen dira guztira: garilaren 4an Altsasun, garilaren 13an Lakuntzan, garilaren 19an Etxarri Aranatzan eta garilaren 27an Uhartea Arakilen.

Asteartean Altsasuko Dantzaleku igerilekuetan gaueko bederatzietatik aurrera burutuko den Ur Festa Goxoarekin emango zaio hasiera 2017ko udako Ur Festa Goxoen egutegiari. 12 urtez gorako gaztetxoek har dezakete parte. Sarrera doanekoa da eta edizio honekin Altsasuk bederatzigarrenez hartuko du Ur Festa Goxoa.

Gozamenez

Sexualitatea eta gazteak lotzen dituen programa bat da Gozamenez, gazteen sexualitatea ikuspegi positibo, adeitsu, plural



Gazteak igerilekuan. ARTXIBOA

eta aberasgarri batetik lantzea helburu duena. Sexualitatearen hainbat alderdiri buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatu nahi du gazteen artean eta gazteen eta haien bitartekarien artean –familia, ikastetxea, ko-

munikabideak...-. Finean, gazteen bizitzan sexualitateak duen tokia agerian utzi nahi du, gune publiko eta ohikoetan. Eta nola? Gazteekin esperientzia ludikoak egiten, horien bidez ohartarazi nahi baitzaie gure gorputzak eta zentzumenak plazer iturri eta komunikazio bide direla.

Gozamenez programak antolatzen dituen artean dago Ur Festa Goxoa, aurten Sakanako bost herritan antolatuko dena. Urtean barna bestelako jarduerak sustatzen ditu programak, beti helburu berarekin, sexualitatea positiboan ikustea.

Sakanako Gozamenez Batzordea edo koordinakundea ondo koek osatzen dute: Etxarri Aranazko Emakumeari Laguntzeko Zentroko hezitzailea, Altsasuko Gazteria Zerbitzuko teknikaria, Altsasuko, Etxarriko eta Irurtzongo Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio teknikariak eta Etxarriko kultur teknikaria.

Presoen eskubideen urraketen eraginak azaltzeko bideo saila

Atia miñe... ein ziaun ahalegiñe! izenburuarekin Etxarriko Sarek eta www.ahotsa.info-k egin dituzte

ETXARRI ARANATZ

Etxarriko Saretik azaldu dutenez, abiarazi duten bideo-sailarekin “egun presoek aplikatzen zaien salbuespeneko egoerak gizarteratu eta hori gure herrian salatzea du helburu. Hala ere, salaketa hutsean ez genduzte geratu nahi; eskubide urraketa horiek herriko eta Sakana oso sektore eta sentsibilitate desberdinen artean konpartitu eta landu nahi ditugu, komunean urraketa horiei aurre egiteko dinamikak eta lan ildoak proposatzu”. Horregatik, herriko

zazpi presoek ezartzen zaizkien “eskubide urraketa horien testigantza zuzenak bildu nahi ditugu. Euren senide eta lagunekin batera, eskubide urraketa horiek pairatzen dituztenak, haiek dira kartzela politika horren zuzeneko kaltetuak, haien testigantza da urraketa horien adierazlerik nabarmena”.

Saileko aurreneko bideoan aitatasuna/amatasuna eta kartzela gaia landu dute. Juan Ramon Karasatorreren alabak Albocasser espetxetik (450km) idatzitako gutuna jaso du. Haren

bidez, euskal presoen seme-alaba diren mila bat adin txikikoen egoera azaltzen dute. Preso dagoen senidea ikusteko, kasurik onenetan, 800 km-ko bidaiari egin eta, gehien-gehienetan, 1500 eta 2200 km arteko bidaiak. “Haur horietako askok egoera horretan eman dute beren haurtzaro guztia. Beste askok, beren nerabegaroa ere bai”. Haurtzarotik nerabegarora ematen den aldatketan “gurasoen maitasun, arreta eta kontaktua behar izaten dute, batez ere, interakzio zuzena eta kontaktu fisiko zein emozionala”. Saretik diote “nerabegarozan araudi guztiek oinarriko interakzio zuzenak eta kontaktu fisikoa galarazten” dutela, “garapen osasuntsurako ondorio negatiboak ekartzen ditu: baztertze edo abandonua sentitzen dute”.

Isunetan 30.000 euro pagatu direla kalkulatu dute

Esan dutenez, “injustizia gertaerak aldarrikatzea, salatzea edota elkartasuna azaltzea ez da delitua”

ALTSASU

San Juan egunean ehun bat altsasuarrek agerraldia egin zuten atzean “elkartasuna ez da delitua” zioen pankarta zutela. Agerraldiarekin “ebidentzian jarri” nahi izan zuten “estatu espainolak Altsasuko herritarren aurka aurrera eraman dituen estrategia errepresibo desberdinak”.

Azaldu zuten, “Altsasuk, betidanik elkartasuna eman duen herria izanik, errepresio eredu anitzak jasan ditu urteetan estatu espainoleko polizia indarren eskutik”. Atxilotetak, muntaiak, torturak, kontrolak zerrendatu zituzten. Eta “ekonomia-errepresioa edo buroerrepresioa” gaineratu zitoten, “azken aldia erabili izan dena. Errepresio isila, baina berdin mingarria eta onartezina dena”.

Agerraldian izan zirenek “elkartasuna adierazteagatik isunak jaso dituen Altsasuarren ordezkari talde txiki bat” gisa definitu zuen bere burua. Azaldu zuten, “ekintza edo ekitaldi desberdinetan parte hartzeagatik azkenaldian ordaindu behar izan dena 30.000 eurotara iritsi dela kalkulatu dugu”. Kopuru

hori ordaintzeko dirua “herriak batuta” erantzunda lortu dela azaldu zuten. Halako isunekin “haien helburua gu baldintzatzea dela argi dugu. Baina zaila edo ia ezinezkoa izanen da Altsasu bezalako herri oso baten elkartasun adierazpenak gelditzea”.

Berretsi zuten “herrian ematen diren injustizia gertaerak aldarrikatzea, salatzea edota elkartasuna adieraztea ez da delitua”. Horretan segituko dutela nabarmendu zuten, “bide bakarra baita zigor gabe geratu ez daitezela”.

Euren haserre azaldu zuten “zigor gabe geratzen diren delitu bakarrak herritarrok sufritu izan ditugun eta sufritzen ditugunak” direlako; “probokazioak, mehatxuak, kontrol polizialek nagusitasun adierazpenak ... gainera hauek momentuko gobernuaren instrumentu legalen aldetik babestua egon ohi dira”.

Halakoan aurrean “herri osoak mantendu duen duintasuna erdugarria” nabarmendu zuten eta orain arte bezala segituko dutela gaineratu zuten. “Gaur, inoiz baino gehiago, herritar guztien babesa ezinbestekoa baita polizia zentzugabekeria hori desmuntatzeko”.

Ferietakoagatik Madrildik auzibide herrirako eskaera

Aurretik auzitik ateratako gazte baten kontra Iruñean beste auzibide bat zabaltzea nahi dute Madrilen

ALTSASU

Ferietako liskarragatik Espainiako Auzitegi Nazionalan zazpi gazte altsasuar auzipetuta daude, baita bi adin txikiko ere. Instrukzio aldia beste gazte baten jokabidean “terrorismo” deliturik ikusi ez zuten, auzitik atera zuten, baina haren jokabidea “zigorrik gabe” ezin zela gelditu gaineratu zuten Madrildigo epaileek.

Espainiako Auzitegi Nazionalak Nafarroako Lurralde Auzitegia gazte horren kontrako auzia zabaltzera premiatu du.

Madrildigo epaileek eskatzen dute gazte altsasuarri justiziari oztupo egiteko delitua egozte. Delitu horrekin bi urtera arteko kartzela zigorra ezar daiteke. Nafarroako Lurralde Auzitegiak gaia aztertu eta zer egin erabaki beharko du.

Bitartean gurasoen ordezkari Bruselaren inguruan informazioa zabaltzea eta hainbat estatu-talde anitzetako eurodiputatuen babesa eskatzea zen. Bilerak egin eta azalpenak eman zituzten.

Inbertsioak zehazteko gobernuaren erabakiaren zain

Altsasuko Udalaren diruzaintzako gerakina 1.793.173,71 eurotakoa da. Ezin du nahi bezala ibili

ALTSASU

Altsasuko Udalak bere eta erakunde autonomoen 2016ko kontuak itxi berri ditu eta 641.420,81 euroko superabita izan zuen. Zor duena eta kobratzekoa duenak kontutan hartuta diruzaintzako gerakina 1,793 milioikoa da. Baina Aurrekontu Egonkortasun Legeak diru horren zati handi bat zorrak pagatzera behar izan du udala, inbertsionarako gutxi geldituz. Hala ere, 2016an udalak 892.725,490 euroko inbertsioak egin zituen Javier Ollo alkateak azaldu duenez, "inbertsiora bideratutakoa nabarmen handitu da, eta horrek kontratazio gehiago ekarri du".

Erakunde autonomoei dago kienez, Aita Barandiaran egoitzak 67.407,55 euroko superabitarekin bukatu zuen eta 236,81 euroko diruzaintzako gerakina du. Musika eskolak, berriz,



Parlamentariak haur eskola bisitatu.

2.901,02 euroko zuloarekin bukatu zuen (2015ean 4.387,01ekoa izan zen). Diruzaintzako gerakina 5.972 eurokoa da eta harekin estaliko da zuloa. Udalak aurreko urtean baino %7,5 gehiago bideratu zion eskolari, gobernuaren laguntza jaitsi zelako.

Trafiko ordenazio berriko aurreneko urratsak

Etxarri Aranazko Udalak parte hartze prozesuaren ondorioetako bat izan dira Iturri Eder ingurua, Larrañeta eta Nagusia kalean oinezkoendako hobetzeko neurriak hartzea eta zati batzuk oinezkoendako uztea. Erabakiak gauzatzen hasi dira

ETXARRI ARANAZ

Joan den astean Larrañeta kaletik pasa zirenak nabaritu zuten aurreneko aldaketa. Lehen frontoiaren parean eraikinari paralelo aparkatzeko aukera zegoen eta zortzi auto sartzen ziren. Baina orain zeharka aparkatzeko murrak murratu eta gero 16 ibilgailurendako tokia dago. Autoendako ibiltzeko espazioa estutu egin da eta pentsatzekoa da gidariek abiadura ere murriztuko dutela.

Kale horretan bertan, herenegun oinezkoen aldeko beste neurri bat hartu zuen, frontoiko aldagelen parean zebra bide bat margotu zen. Bere berezitasuna

ostillekaren koloreez margotuta dagoela. Herenegun LGTBI komunitatearen nazioarteko eguna zela baliatuta, Etxarriko Bilgune Feministak eta udalak elkarlanean margotu zuten zebra bidea.

Trafiko ordenazioan beste neurri batek hori koloreko marra forma du. Hainbat kaletan zein tokitan ezin den aparkatu adierazten duen seinalea da. Eneka Maiz Ulaiar alkateak azaldu digunez, "parte hartze prozesuan trafikoa ordenatu beharra eta oinezkoendako espazio berriak sortu beharra ikusi da. Aurten urrats txikiak emanen ditugu. Horri dagozkion neurri sendoe-

nak heldu den urtean hartuko ditugu".

Eragako seinalizazioa

Kanposantura, futbol zelaira, ikastolara edo eskolara autoz joateko 788 auto pasatzen dira egunero Eragatik, futbola eta hiletak daudenean gehiago. Arbizurako errepidean dagoen bidegurutzean seinaleztapen bertikala eta horizontala jarriko du Nafarroako Gobernuak, udalak hala eskatuta. Bi administrazioak aurrerago aztertuko dute bidegurutzeko trafikoa egoki bideratzeko abiadura murrizteko karrila edo borobila egitea komeni den.



BABESLE, LAGUNTZAILE ETA BOLONDRES GUZTIEI

ESKERRIK ASKO ZUEN LAGUNTZAGATIK

ETA BEREZIKI:

AGOITZ, AIMAR, AINHOA, AITOR, AITZOL, ALAIN, ALBERTO, ALFONSO, AMAIA, AMAIUR, AMETS, ANA, ANARTZ, ANDER, ANDONI, ANGEL, ANTONIO, ARANTXA, ARANTZA, ARIANE, ARITZ, ARKAITZ, ASIER, AUXKIN, BEÑAT, BIDART, BIMBOIRE, BORJA, CARLOS, CHEMA, CHRISTOS, CRIS, DANIEL, DAVID, DIANA, DIEGO, EDUARDO, EDURNE, EGOITZ, EIDER, EKAITZ, EKHI, EKHIÑE, ELOI, ELOY, ENDIKA, ENEKO, EÑAUT, ERIZ, ERKUDEN, FELICISIMO, FELIX, FERMIN, FRAN, FRANCISCO JOSE, GAIZKA, GORKA, GOTZON, GUILLERMO, HARITZ, HODEI, HUGO, IBAI, IBON, IGOR, IKER, IMANOL, INAKI, INMA, IÑAKI, IÑIGO, ION, IRACHE, IRAITZ, ISAAC, ISMAEL, ISRAEL, IVÁN, IZAI, IZASKUN, JAUME, JAVIER, JESUS, JOANA, JOAQUÍN, JOHNNY, JOKIN, JON, JONE, JORGE, JOSE, JOSE ANTONIO, JOSE EUGENIO, JOSE JAVIER, JOSE LUIS, JOSÉ MARTÍN, JOSEBA, JOSETXO, JOSU, JOXI, JUAN, JUAN JOSE, JUANJO, JULEN, KARLOS, KAXI, KEPA, KIKE, KIKO, KOKE, LAIDA, LEIRE, LEYRE, LIDE, LUIS, LUIS HILARIO, LUIS MANUEL, LUIS MIGUEL, LUR, MADDI, MAITE, MARIA, MARIJO, MARKEL, MARTIN, MATHIEU, MATTIN, MIGUEL, MIGUEL ANGEL, MIKEL, MIQUEL, MIREIA, MONTSE, MONTSERRAT, NICOMEDES, OIER, OIHAN, OLATZ, ORTZI, OSCAR, OSKAR, PABLO, PANTXIKA, PATXI, PEDRO, PEIO, PERU, RAFAEL, RAMUNTZO, RAUL, REDA, RICARDO, RICHARD, ROBERTO, ROSANA, RUBEN, SAIOA, SANTI, SERGIO, TXOMIN, UHAITZ, UNAI, URKO, URTZI, VERONICA, VICTOR, XABAT, XABI, XABIER, XANTI, XIKER, XUBAN, YINA VANESSA ETA YOANNARI

TRIKUTRAIL LASTERKETAN PARTE HARTZEAGATIK.

Zerga-jakinarazpenak Dermauko lur-jabeei

Industrialdea egitekoa zen sektore horretan. 2003an hasi zen tramitazioa baina oraindik ez da inolako lanik egin. Udalak lurjabeei birpartzelazioagatik eta urbanizazioagatik guztira 162.319 euro eskatu dizkie

ALTSASU

Javier Ollo Martinez alkateak azaldu digunez, "ideia da lege-gintzaldi honetan hirigintza oinarriak onartzea. Horretarako Dermau edo Lezalde moduko sektoreak itxita egon behar dute". Ollok esan digunez, "Dermauko lur-jabeei gutuna bidaliko diegu, sektorea garatzea nahi duten edo ez esan dezaten" Bestetik, jakinarazi digu Lezalden etxebizitzak egin nahi duten lur-jabeei epaitegira jo dutela.

Bitartean, Dermauko lurjabeek udalarengandik birpartzelazio/urbanizazio kontzeptuagatik premiamendu-probidentziak jaso dituzte. Guztira 162.319 euro dira. Zerga-jakinarazpenak bere bide guztia bete ez dezan eta ez enbargatzeko lur-jabe gehienek zorrak pagatu dituzte, baina, aldi berean, berraztertze-errekurtsuak aurkeztu dituzte. Helegite horretan lur-jabeek, besteak beste, argudiatzen dute zorra iraungi egin dela. Idatzietan diotenez, ordaindu beharreko kopuruak 2012ko martxoan zehaztu ziren eta Tributuen Foru Lege Orokorak jasotzen duenez, lau urteko epea dago ordainketa exijitzeko. Horregatik, ordainketak egiteko epea pasa dela diote.

Nafarroako Kontu Ganberak Altsasuko Udalaren 2010eko kontuen inguruko txostenean Dermauko urbanizazio kuota "berehala" kobratzeko eskatzen zuen, "bestela, kuota preskribatzeko arrazoiz izan daiteke". 2012an argitaratutako txosten horretan Ganberak gaineratu zuen, "birpartzelazioari uko egin ez gero beharrezko neurriak hartu behar dira, dena hasieran zegoen egoerara bueltatuz, horrek dakarren kostuarekin".

Horretaz aparte, lur-jabeek udalaren jardun falta, urbanizazioa garatu ez izana eta epeak bete ez izana argudiatu dituzte. Urbanizazioa egiteko udalak



Dermau dermia autobiarene eta errepide zaharraren artean dago. ARTXIBOA

LURJABEEK ZORRAK ORDAINDU DITUZTE ETA BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA AURKEZTU DUTE ERE

egin duen bakarria birpartzelazioa izan da. Dermauko sektorea garatzeko konpentsazio sistema aukeratu zen eta horren arabera 15 urteko epean egin behar dira lanak. Oraindik larre direnak heldu den urteko otsailaren

13rako despedituta egon behar ko luketeela diote sektoreko lur-jabeek. Aldi berean, lur-jabeek euren errekurtsuan diote Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Foru legean ezarritakoaren kontra, zergen eta onuren arteko orekaren printzipioa urratu egiten dela, ez baitute "inolako hirigintza aprobetxamendutik, erabiltze edo lupetzerik". Bestetik, Dermaun lursaila erosi zuen enpresa batek, bere jarduna hara lekualdatzeko. Egin ez denez, eragindako galerak aipatzen ditu enpresak.

ITURMENDIKO UDALA

U-6 unitatearen borondatezko birzatiketa proiektua. Hasierako onespina

Iturmendiko Udalak, 2017ko maiatzaren 16an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi du U-6 unitatea urbanizatzeko Luarden SLk sustatu duen proiektua.

Espedientea jendaurrean egonen da hogeit egunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 168. artikuluan 76. artikuluari dagokionez ezarritakoari jarraituz, interesdunek bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Iturmendin, 2017ko maiatzaren 16an.-Alkatea, Victoriano Gabirondo Lanz.



ARTXIBOA

Udal-artxiboa antolatzen

Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak 60.000 euro bideratu ditu Nafarroako 33 Udal eta Kontzejuk, 500 biztanle baino gutxiagokoak gehienak, euren udal artxiboa behar bezala antolatu eta martxan jar dezaten laguntzera. Helburu horrekin diru-laguntza jaso duten toki erakundeetako bat da Iturmendiko Udala.



EBROKO UR KONFEDERAZIOA

Ibaia hobetzeko CHEren lanak

Ebroko Ur Konfederazioak (CHE) ibaien ubidea hobetze aldera 1.083.000 euroko gastua izan duten 259 lan egin ditu. Bereziki, traba egiten dioten eroritako zuhaitzak eta halako elementuak kentzen dira, ibaiak gainezka egiten badu, arriskuak gutxitzeko. Ebroko Ur Konfederazioak Nafarroan egindako 35 lanetatik bi Burunda ibaian burutu dira, Altsasun.

Andra Mari ikastolak 2017/2018 ikasturterako ondorengo profila duten langileen beharra dauka:

1. DBHn euskara eta ingelesa emango dituen lizentziatua edo graduatua + irakaskuntzarako masterra (CAP) + EGA edo baliokidea.

2. DBHn zientzietako arloak emango dituen lizentziatua edo graduatua + irakaskuntzarako masterra (CAP) + EGA edo baliokidea. Scratch eta robotikako ezagutzak kontuan hartuko dira.

Curriculumak uztailaren 3a baino lehen etxarri@ikastola.eus helbidera bidali ondorengo izenburuekin: "DBH letrak" edo "DBH zientziak".



Bost herri festetan

San Pedro eguna ospatu zuten atzo altsasuarrek eta saildu horren omenezko ospakizun gehiago izanen dira gaurtik aurrera Sakanan. Arruazun, Unanun, Lizarragabengoan eta Urdiainen hain zuzen ere. Aurten haiei Urritzola batu zaie. Azken hori herri txikia izanik, urritzolar denak elkartzen diren udako eguna aukeratzeko dute festak ospatzeko.

URRITZOLA

OSTIRALA 30

- 17:30 Suziria.
- 17:45 Karpa jartzea.
- 20:00 Herri dantzen entsegua.
- 21:30 Txerriki afaria.

LARUNBATA 1

- 11:00 Dianak
Gaitabal gaiteroekin.
- 12:00 Suziria eta gosaria,
Galtzagorri txarangak alaitua.
- 13:00 Herri jokoak.
- 15:00 Euskal-parrilak.
Zerbitzatutako bazkaria,
Galtzagorri txarangak alaitua.
- 17:00 Mus azkar eta partxis
txapelketak.
10 euro bikoteko.



Urritzolako gazteek mozorroak jantziko dituzte.

- 18:30 Haur jolasak.
Lurrean, airean eta uretan.
- 20:00 Dantzak.
Txapeioak eta zortzinoa.
- 20:30 Dantza solteak eta lotuak.
- 22:00 Zezensuzkoa.
- 22:30 Afari autogestionatua eta bingoa.
- 00:00 Dantzaldia
Semifusa Yeye taldearekin.
- Ondoren, disko-musika.

UNANU



Elkarteak bazkari-afariak hartuko ditu.

OSTIRALA 30

- 13:30 Txupinazoa.
- 15:00 Bazkaria, elkartean.
- 18:00 Haurrendako jokoak.
- 20:00 Auzatea.
- 21:00 Dantzaldia
Fernando eta Beñatekin, plazan.
- 21:30 Zezensuzkoa.
- 22:00 Afaria, elkartean.
- 00:00-5:00 Dantzaldia
Fernando eta Beñatekin, plazan.

LARUNBATA 1

- 11:00 Gosaria, elkartean.
- 12:00 Jolas parkea, eskoletan.

- 15:00 Bazkaria, elkartean.
- 17:30 Jolas parkea, eskoletan.
- 20:00 Auzatea
- 21:30 Zezensuzkoa.
- 22:00 Afaria, elkartean.
- 00:00-5:00 Dantzaldia
Gabenara taldearekin.

IGANDEA 2

- 11:00 Gosaria, elkartean.
- 11:30 Pilota partidak.
- 15:00 Bazkaria, elkartean.
- 18:00 Aizkora apustua.
- 20:00 Auzatea
- 21:30 Herri afaria.
- 00:00... Dantzaldia
Trikidantz taldearekin.

ARRUAZU

OSTIELA 30

- 18:30 Suziriya herriko itxetik.
- 19:00 Bezperak San Pedron.
- 19:30 Beenduba
Sanpedrondon.
- 22:00 Zezensuzkua
- 22:15 Arbazuko zortzikuak,
plazan.
- 22:30 Herri afaaiya, elkartien.
- 1:00-4:00 Dantzaldiya
Drindots taldiekin.

LAUNBETA 1

- 13:00 Bermuta, ostatuben.

- 18:00 Zirko tailerra.
- 20:00 Gazta ta ardua, plazan.
Arbazuko kilikiak.
- 20:00-22:00 Dantzaldiya
Gaubela taldiekin.
- 22:00 Zezensuzkua
- 00:30-3:30 Dantzaldiya
Gaubela taldiekin.
- 20:00 Gazta eta ardua, plazan.
Arbazuko kilikiak.
- 20:30 Banakako pala
erakustaldiya.
- 20:00-22:00 Dantzagarriyek
Agirren Anaiak taldiekin.
- 22:00 Zezensuzkua
- 22:15 Herri afaya
herriko itxen.
- 00:30-3:30 Dantzak
Agirren Anaiak taldiekin.

IYENDIE 2

- 17:00 Mus ineztura, elkartien.
Jolas parkia, haurrendako.
- 19:00 Haurrendako apar
festa.

ASTELEHENA 3

- 15:00 Herri-paella jatia.
- 18:00 Denondako
herri-kirolak.



Beenduban bapo jan eta edango dute arruazuarrek.

- 19:30 Haurrendako
txokolate-jana.
- 20:00 Gazta ta ardua.
Arbazuko kilikiak.

- 20:30 Play back txapelketa.
- 22:00 Zezensuzkua
- 22:30 Herri-parrillada, plazan.



IZURDIAGAN mozerro-kalejira egin zuten. UTZITAKOIA



UHARTE ARAKILGO txupinazoa alkate, zinegotzi eta Aralar Mendi Elkarteak. GUAIXE



ARBIZUN Lakuntzako erraldoi eta buruhandien bisita



LAKUNTZAN San Juan bezperan ezkil-errepika jotzen da. GUAIXE



ARBIZUKO kuadrillek festetan atorrak soinean eramaten dituzte egunero. GUAIXE



URDIAINEN adin guztietako herritarrek ederki gozatu



ARBIZUKO zortziko-dantza Marilonbreren zaldiya. GUAIXE



ARBIZUN su gainetik salto egiten. GUAIXE



ALTSASUKO San Pedroko zelaian eguerdi partean hor



ARBIZUN kaleetan suak piztuta bata bestearen atzetik. GUAIXE



ARBIZUKO gazte-eguneko kontzertuan Altsasuko gazteak gogoan. UTZITAKOIA



Baso zuten igandean. GUAIXE



URDIAINEN herriko neska gazteak elkartzen dira San Juan Kantaitan. GUAIXE



URDIAINGO San Juan basilizan su gainean salto ederrak ikusi ziren. GUAIXE



Baso zuten suaren bueltan. GUAIXE



ALTSASUN ohitura jarraituz abardiak zintzilikatu ziren etxeetan. GUAIXE



ALTSASUKO plazan Egubera Taldekoek merendua prestatu zuten. GUAIXE



ALTSASUKO gazte-kuadrilla honek su handia piztu zuen. JABI MORENO



ALTSASUKO San Pedroan ardoa edaten zilarrezko kizaratik. GUAIXE



Baso zuten giroa zegoen. GUAIXE



OLTZAGUTIAN Batueko egunean hamaiketarako prestatzen. GUAIXE



OLTZAGUTIAN Batuekon bildutako kuadrilla bat atseden momentu batean. GUAIXE

URDIAIN

OSTIRALA 3

21:00 Kantirun, herriaren etxean.

LARUNBATA 1

12:00 Etxajua eta festen hasiera Sakaranga txarangarekin.

13:00-15:00 Kuadrillen arteko kalderete txapelketa. (UGAk antolatuta).

17:00 Haur kategoriako bizikleta lasterketa eta ginkana.

17:00 Urdiaingo I. Artisautza Azoka plazan. (Akaberan produktu guztien saski zozketa).

20:15-22:00 Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

22:00 Presoen eskubideen aldeko afaria.

1:00-4:00 Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

DOMEKA 2

10:30 Ardo banaketa San Pedroko hariztian.

12:30 Meza nagusia San Pedroko basilizian.

14:30 Bazkaria San Pedroko zelaietan.

17:00 Zortzikoa.

19:00 Salbea eta herrira itzulera.

20:00-22:00 Dantzaldia Gabenara taldearekin.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30-2:30 Dantzaldia Gabenara taldearekin.

ASTELEHENA 3

JUBILATUEN EGUNA.

10:00 Gosaria alondegian, Tintinurri elkartearen eskutik.

12:00 Meza.

12:30-14:00 Dantzaldia Fidel Zelairekin.

14:30 Jubilatuen bazkaria, ondoren Fidel Zelairekin dantzaldia.

15:00 Gizonen bazkaria Txorongo txarangak alaitua.

18:00 Kiki pailazoa plazan.

20:00-22:00 Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

24:00-3:00 Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

ASTEARTEA 4

10:00 Gosaria alondegian, gizonen eskutik.

12:30 Imperial bikotea plazan.

14:30 Emakumeen bazkaria Turrutxiki txarangak girotua.



Plaza herritarrez beteta joan den urteko festetan.

20:00-22:00 Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30-3:30 Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

ASTEAZKENA 5

10:00 Gosaria Aitziber elkartearen eskutik.

11:00 Bordetxe, plazan.

11:30 Jolasak wipeout barredora eta puzgarriak, plazan.

14:30 Herri bazkaria.

17:30 Etxez etxe Irunberriko txarangarekin.

16:30-19:30 Jolasak wipeout barredora eta puzgarriak, plazan.

20:00-22:00 Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

22:30 Bertso afaria frontonien.UGAk antolatua.

00:30-03:30 Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

Oharrak: Egunero, eguerdi eta iluntzean, ardoa banatuko da alondegian. Egurdietan auzoan lenteria erakusketa.



Urdiaindarrek berriro ere dantzatu dute Tximeleta taldearekin.

LIZARRAGABENGOA

OSTIRALA 30

19:00 Festen hasiera.

19:30 Auzatea.

21:30 Afaria.

23:00-2:30 Dantzaldia.

LARUNBATA 1

12:00 Etxez-etxe trikitilariekin.

16:00 Puzgarriak.

17:00 Pilota partiduak.

18:00 Haurrendako jolasak.

18:30 Aizkora.

20:00 Auzatea.

21:30 Afaria.

23:00-2:30- Musika.

IGANDEA 2

12:00 Etxez-etxe trikitilariekin.

16:00 Puzgarriak.

17:00 Apar festa.

18:00 Txokolate-jana.

19:30 Kontzentrazioa: Euskal presoak, Euskal Herrira.

20:00 Auzatea.



Igandean gaztetxoek apar-festaz gozatu dute berri.



Exarri Aranazko koadrilako lagunekin argazkia atera zuen Adur Lasak debuta egin eta gero. UTZITAKOIA

Lasa IV.ak ezin izan zuen garaipenarekin debutatu

PILOTA Laso eta Tolosaren kontra 17 eta 22 galdu zuten Ezkurdiak eta Adur Lasak Exarri Aranazko atzelariak Asperekin egin zuen debutean. Eibarko Astelenan Exarri Aranazko koadrilaren, lagunaren eta senitartekoen babesa izan zuen Lasa IV.ak

Adur Lasa, Lasa IV.ak igandean debutatu zuen Asperekin, Eibarren. Etxarriko lagun eta senitartekoen babesa izan zuen baina, tamalez, ezin izan zuen bere ibilbidea garaipenarekin hasi.

Ezkurdia izan zuen bikote Adur Lasak eta Laso eta Tolosa arerio. Hasieratik maldan gora jarri zitzaizkien gauzak sakandarrei, 9 eta 0 hasi baitziren galtzen. Pixkanaka, urduritasuna galtzen eta partidari tamaina hartzen joan zen Lasa, eta hamazazpina berdintzea lortu zuten sakandarrak, baina bukaeran Laso eta Tolosa finago ibili ziren eta garaipena lortu zuten, 17 eta 22. Materialari egokitzea falta zaila nabarmendu du Lasak.

Irujok Zubieta gogoan izan zuen

Larunbatean Juan Martinez de Irujok omenaldi hunkigarria jaso zuen gainezka zegoen Labrit pilotalekuan. Hasierako partidari Dariok eta Martijak 14 eta 22 irabazi zioten Ugalderi eta Jaunarenari. Partida nagusiko ohorezko sarea Irujok egin ondoren, partida nagusian Ezkurdiak eta Merino III.a 15 tantotan utzi zituzten Irribarriak eta Beroizek.

Irujok esker oneko hitzak izan zituen. Tartean, pilota kideak izan zituen gogoan, bere ibilbidea zuriz jantzita bukatzerik izan ez duten bi pilotari bereziki. "Gaur urte hauetan barna nirekin aritu diren kide guztiak ditut buruan, baina modu berezian Mikel Idoate eta Aitor Zubieta, nire bi lagun" aipatu zuen Iberokoak. "Guztien artean pilotarekiko pasioa mantentzen dezagun. Gure kirola da, hemengoa. Gora euskal pilota!" hitzekin eskertu zuen omenaldia.

Aitor Zubietak uztailaren 7an jasoko du omenaldia, Labriten, sanferminetako egun berezienean, bere ibilbidea hasi zuen kantxa kuttunean. Jendea data hori iristeko gogoz dagoela onartu du.

Saskibaloia campusa

SASKIBALOIA Igandean hasi zen Gipuzkoako Saskibaloia Federazioak antolatutako saskibaloia campusa, Altsasun. Otadiko Kristo Deuna aterpean daude saskibaloia jokalariek gipuzkoarrak. Lehen txandan haur mailako saskibaloia jokalariek trebatzen ari dira, 34 guztira, eta bigarren txandan txikiak ari dira.



ARGAZKIA: GIPUZKOAKO SASKIBALOIA FEDERAZIOA

Ezkurdiak sanferminetako lau t'erdian aurrera egin ote zuen?

PILOTA Atzo Mendizabal III.a izan zuen arerio Mungian, sanferminetako lau t'erdiko final laurdenetan

Uztailaren 7an jokatu da sanferminetako lau t'erdiko finala, zapi gorritz eta jantzi txuriz bete egongo den Labriten.

Aspeko adarrean, atzo arratsaldean jokatu zuten final laurdena Joseba Ezkurdiak eta Mendizabal III.ak. Atzo erretrakzioa ixterakoan ez genuen oraindik emaitzaren berri. Lortuko al zuen Ezkurdiak irabaztea eta igandean, Sopelan, Altunaren kontra jokatzeko sailkatzea? Izan ere, atzoko partidako irabazleak igandean, 16:30ean, Altuna III.a zain izango du Sopelan (ETB1).

Asergaceren adarrean, bihar, larunbatean, sanferminetako lau t'erdiko finalerdia jokatu dute Aimar Olaizolak eta egungo sanferminetako lau t'erdiko txapeliduna den Urrutikoetxeak Barañaingo Retegi pilotalekuan, 22:00etan (ETB1).



Ezkurdia eta Mendizabal III.a. ARTXIBOIA

Zubietari omenaldia

Sanferminetako lau t'erdiko final handia hartuko duen jaialdian Aitor Zubieta pilotaria omenduko dute. Belaunean duen lesioarengatik pilota utzi behar izan du etxarriarrak eta merezitako omenaldia jasoko du.

BTI Sakandarrak 20. Extrem Bardeak lasterketan

Asteburuan jokatu zen 20. Extreme Bardeak mendi txirringularitza edo btt proba gogorra, Arguedasen. 1.350 pertsona zeuden izena emanda eta irteera hartu zuten txirringularietatik 773 bikerrek lortu zuten probako 115 km gogorrak osatzea. Beroa, hautsa, haizea eta beste izan zituzten bidaide. Tartean zeuden hainbat biker sakandar.

TRIATLOIA Iturbe 28.a Donostiako Onditx Oroituz Triatloian

32. Onditx Oroituz Triatloia jokatu zen igandean Donostian (1,5 km igerian, 40 km txirringularitza eta 10 km korrikari). 546 triatletek lortu zuten proba despiditza, Francisc Godoy (1:55:56) eta Asahleigh Gentle (2:08:29) buru zirela. Sakana Triatloi Taldeko Eneko Iturbe 28.a iritsi zen helmugara, proba bikaina egin eta gero (2:11:54).



Garbiketa orokorrak, etxebizitzak, bulegoak, portalak
629 732 160
imazmaite@hotmail.com

Taxi
Jose Iturralde
629 42 80 25
9 lagunendako Taxia / Irurtzun
taxijoseiturralde@gmail.com
www.taxijoseiturralde.com



Aritz Munarriz eta Erkuden San Martin Triku Traileko lehen sakandarrak eta lehen etxarriarrak izan ziren. GUAIXE

Iñarra eta Etxezarreta nagusi Triku Trailean

MENDI LASTERKETAK Aritz Munarriz eta Erkuden San Martin izan ziren Etxarri Aranazko mendi lasterketako lehen sakandarrak eta etxarriarrak. Guztira 269 mendi korrikalarik lortu zuten proba despeditzea, 43 sakandarrek tartean

ETXARRI ARANATZ

IV. Triku Trail Mendi Lasterketa jokatu zen igandean Etxarri Aranatz. Triku Trail Kirol Taldeak antolatu zuen lasterketa, Etxarriko Kanpina, Etxarri Aranazko Udala, Xalok, Sakana Fundizioa, Nafarroako Mendi Federazioa eta Lete-Coviran, beste hainbat komertzioaren babesarekin.

Aurten probak ez zuten Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako eta Euskadiko Koparako puntuatzen baina goizeko lehen orduetarako Etxarri Aranazko Kanpina korrikalariz betetzen hasi zen, antolakuntzak zehaztutako 350 izena emateak aurretik beteta baitzeuden. Korrikalariek, 21 km-ko proba zuten aurrez aurre, 1.400 metroko

desnibel positiboarekin. Aurreko egunen berotzarren ondoren, korrika egiteko egun polita izan zuten, paraje bikainetan barna, haritz eta pago artean. Maitzegur, Auntzetxe eta Axioaren putzua pasatu eta gero, Lizarrustira iritsi ziren, Txaradigorri trikuharrira jotzeko. Horrik Hirumugeta igo zuten, Otxent jaitsi eta Fagamendi igo. Eta

haritz zaharren ibilbidetik jaitsiz, Etxarriko Kanpineko helmugara iritsi ziren.

Errekorrik gabe

Ander Iñarrak, Xabier Maciasek eta Juango Igarzabalek lehia estua izan zuten aurrean. Azkenean Iñarra izan zen txapeldua (1:43:42), Maciasi ia minutu bateko aldea hartuta (1:44:31). Juanjo Igarzabalek osatu zuen podiuma (1:47:30). Emakumezkoetan, berriz, Maite Etxezarreta azpeitiarrak ez zuen areririk izan eta merezimendu osoz irabazi zuen (2:10:12), Laida Elizegi zaldibiarrari 5 minutu pasako aldea atera zion (2:15:18). Galarko Izaskun Sanz 3.a sailkatu zen (2:18:15). Iñarrak eta Etxezarretak ez zuten iaz Walter Becerrak (1:42:58) eta Virginia Perezek (2:07:08) ezarritako errekorra gainditzetik izan.

43 sakandar

Nabarmentzekoa da 43 sakandarrek osatu zutela proba. Azkarrenak Aritz Munarriz etxarriarra (1:52:20, 8.a helmugan) eta Erkuden San Martin etxarriarra izan ziren, (2:34:37, helmugan 169.a eta emakumezkoetan 7.a). Bukaeran sari ematea izan zen eta auzate ederra. Korrikalari guztiek kamiseta eta opari poltsa jaso zituzten. Guztira antolatzeke 100 boluntario inguru aritu ziren lanean.

Zumaia eta Amurrio

Zumaia IX. Fytsch Trail Mendi Maratoi erdian (21 km) Juan Pedro Ariz bakaikuarra 161.a sailkatu zen parte hartu zuten 324 korrikalarien artean (2:06:30). Bestalde, VI. Amurrio Trail lasterketan (12 km), Ainhoa Markinez olaztiarra 87.a sailkatu zen (1:36:24).

Sakandarrak IV. Triku Trail Lasterketan

Gizonak

1. Ander Iñarra (Lezo)	1:43:42
8. Aritz Munarriz (Etx)	1:52:20
12. Aritz Ganboa (Arru)	1:55:44
14. Mikel Rubio (Iru)	1:56:33
16. Joxeja Maiza (Etx)	1:58:34
26. F. Benjumea (Alts)	2:01:06
29. A. Unzurrun. I. (Etx)	2:02:18
36. Juan Larrea (Alts)	2:04:52
40. Mikel Astiz (Ihabar)	2:05:59
42. A. Unzurrun. G. (Etx)	2:06:22
45. David Mutiloa (Iru)	2:06:46
52. M. A. Asurabarrena (Lak)	2:08:16
54. Iker Flores (Urd)	2:08:44
57. Patxi Cano (Alts)	2:09:30
73. Fran Araña (Arb)	2:11:57
75. Xub. Mendiola (Etx)	2:12:11
82. Igor Artieda (Etx)	2:14:10
84. Juan Mariñelarena (Etx)	2:14:27
98. A. Martinez (Alts)	2:18:24
102. Kaxi Estarriaga (Etx)	2:19:52

Emakumeak

60. Maite Etxezarreta (Azpeitia)	2:10:12
169. Erkuden San Martin (Etx)	2:34:37
202. Leire Palacios (Alts)	2:41:27
225. M. Goikoetxea (Etx)	2:47:09

* Sailkapen osoa: guaixe.eus

HELDUAK KORRIKA ZEUDELA, TRIKUTXIKIAN ARITU ZIREN ETXEKO TXIKIENAK

ZIORDIKO TXAPELKETA

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Los Suaves - Futsal Sakana	7-7
Dia Ibaia - Ziordia	4-10
Aralar Mendi - Iradi	4-5

7. JARDUNALDIKO PARTIDUAK

IGANDEAN	
19:00 Ziordia - Futsal Sakana	
20:00 Aralar Mendi - Auzomotojorik	
Los Suaves - Ingeniería Iradi (jokatuta)	

Hasierako faseari agur

Asteburuan I. Ziordiko Futbol Txapelketako hasierako faseko 7. eta azken jardunaldia jokatuko da.

Osasunaren campusa

FUTBOLA Astelehenean hasi zen Osasuna Fundazioak Etxarri Aranazko Udalaren laguntzarekin antolatutako futbol campusa eta gaur despedituko da. 4 eta 10 urte bitarteko 30 neska-mutiko dabilta trebatzen, goizeko 8:45etik 14:00etara, Etxarri. Hurrengo astean Altsasuk hartuko du lekukoa.





Erakusketan Jesus Ignacio Migel Amoztegiren margoak eta ibilgailuak ikus daitezke. GUAIXE

IV. Ibilgailu klasikoen topaketa bihar Altsasun

AUTOMOBILISMOA Bihar, larunbatean, 9:30etik aurrera, Altsasuko Zumalakarregi plazan, Clasicos Alsasua taldeak antolatuta. Autoen topaketa, ibilbidea eta bazkaria antolatu dituzte. *Sobre ruedas* erakusketa zabalik dago lortian, garilaren 7ra arte

Clásicos Alsasua taldeak IV. Ibilgailu klasikoen kontzentrazioa antolatu du biharko Altsasun, hainbat komertzio eta enpresaren babesarekin. Goizeko 9:30etik bilduko dira mota guztietako auto, motor, kamioi eta bizikleta klasikoak Zumalakarregin, eta ibilgailu berezi horiek gertutik ikusteko aukera izanen da. Antolakuntzak, halaber, ibilgailuen jabeendako hamaiketako eta zozketa antolatu ditu. Eguerdi aldera, 12:30ean, 25 km inguruko ibilbidea egingen dute, batera, topaketan parte hartu duten ibilgailuek. Asmoa San Pedrorra jotzea da, Urdiaindik Iturmendiraino iristeko eta handik buelta hartzeko.

Behin Altsasun, poteo herrikoa izanen da eta Iortia Kultur Gunean Clásicos Alsasua taldeak prestatutako *Sobre ruedas* erakusketa ikusteko aukera izango dute bildutakoek. 15:00ak aldera, bazkaltzera bilduko dira Burunda frontoian (helduek 20 euro eta haurrek 7 euro).

Sobre ruedas erakusketa

Horrela du izena IV. Ibilgailu Klasikoen harira Clásicos Alsasua taldeak Iortia Kultur Gunean antolatutako erakusketak. Zabalik dago garilaren 7ra arte, astegunetan, 10:00etatik 13:00etara eta 18:30etik 21:00etara. Erakusketa bitxia da eta altsasuarren eta inguruko herritakoak piezak hartzen ditu. Erakusketa erdi-erdian Santos Crespo anaien 1963 urteko Renault Dauphine bat dago, piezak azpian agerian dituela. "Coche de las viudas" izenarekin ezagutzen zen autoa, eta Santos Crespo anaiek berrizatu dute. Horretaz gain, Razesaren 80. hamarkadako bizikleta bat, Letonaren 70. hamarkadako beste bat, Orbeako 50.

MIGUEL AMOZTEGIREN KOADROAK ETA MOTOR, AUTO ETA PIEZA UGARI DAUDE IKUSGAI IORTIAN

hamarkadako beste bat (Emigdio Vazquez), Correoseko DAL bizikleta (Txalaparta taberna) eta beste daude ikusgai, Santi Saez de Muniainek utzitako bizikleta txikien eta 1965eko Kart Guzzi baten ondoan. Ondoan, Esteban Zornozak egindako trena dago, Mikado baporeko makinaren erreproduktzioa. Eta beste aldean, motorrak daude: 70. hamarkadako Puch minicross, 50. hamarkadako Mobylette GAC, 60. hamarkadako Montesa, 80. hamarkadako Mobylette Onix... Iker Palacios, Bittor Duranek, Esteban Zornozak eta Emigdio Vazquezek utzitakoak dira pieza hauek.

Eta guztia inguratzen, Jesus Ignacio Miguel Amoztegiren margo eta marrazki bikainak, hainbat ibilgailu mitiko erakusten dituztenak. Asko aspaldiko koadroak dira, baina erakusketan antolatzearekin batera, atzera ere animatu eta bi koadro berri egin zituen Miguelek, propio, erakusketarako.



Iban Lopez de Goikoetxea bere Renault 5 GT Turboarekin. ODEIRACING

Palacios, Lopez, Fernandez eta Askargorta Udanan eta Arnedon

AUTOMOBILISMOA Udanako Igoeran eta Arnedoko Hiria Lur Gaineko Rallysprintean bikain ibili dira gure pilotuak

XII. Udanako Igoera jokatu da asteburuan. Ia 50 pilotuk lortu zuten igoera osatzea; aldiz, 15ek proba utzi behar izan zuten. Aitor Zabaleta (Lola BMW) izan zen azkarrena Udanako malde-tan gora (2:15.881). Sakana Motorsporteko Iker Palacios lantzarra (BRC Evo) 9.a sailkatu zen (02:40.032), bere mailan, CM mailan, bigarrena. Sakana Motorsporteko Iban Lopez de Goikoetxea pilotu olaztiarra (Renault 5 GT Turbo) hamaikagarrena sailkatu zen (02:42.359). Formula Libre mailan laugarrena eta Renault Turbo Kopan lider izan zen olaztiarra.

Fernandez eta Askargorta zazpigarrenak Arnedon

Asteburuan Arnedoko Hiria Lur Gaineko III. Eremua jokatu zen, Errioxako Txapelketarako baliagarria. 31 ibilgailuk lortu zuten proba despeditzea, eta 6 erretiratu egin ziren. Jorge del Cid eta Nuria Aragon (Mitsubishi Lancer Evo X R4) gailendu ziren (22:55.500). Sakana Motorsporteko Aitor Fernandez eta Iker Askargortak (Seat Ibiza 2.0 16v) zazpigarrenak sailkatu ziren (25:47.300), 2 RM kategorian bigarrenak. Nafarroako Lur Gaineko Rally Txapelketan lehen postuetan dabiltza sakandarrak.



UTZITAKOA

Maitane Vilariño Muliererra

FUTBOLA Maitane Vilariño olaztiarra da 2. mailako Iruñeko Mulier taldean sartu den azkena. Gasteizko Aurrera taldetik dator, azkeneko denboraldian 36 gol egin zituen, hegaleko jokalaria da, azkarra, bat batekoaren kontra oso iaioa eta jaurtitzaila bikaina.



Albaceteko erorikoaz oraindik guztiz osatu gabe, Montmelón hirugarrena sailkatu zen, merito handiz. CEV

Olias European Kawasaki Z Cup txapelketan

MOTOZIKLISMOA Espainiako Abiadura Txapelketaren (CEV) barruan dago txapelketa. Ekainaren 18an Montmelón jokaturako lasterketan hirugarrena sailkatu zen irurtzundarra eta egun, Kawasaki Z Cup-eko sailkapen orokorrean seigarrena da

Irurtzungo Juanma Olias pilotua ez da gelditzen. Aurten CEV edo Espainiako Abiadura Txapelketaren barruan antolatu den European Kawasaki Z Cup Txapelketan lehiatzen ari da irurtzundarra, izen bereko motorrekin, Kawasaki Z 900 moto berriarekin. Kopa honetan 15 pilotu lehiatzen ari dira eta 6 proba dituzte. Dagoeneko 3 jokatu dira: apirilaren 29an eta 30ean Albaceten (lasterketa bikoitza) eta ekainaren 18an, Bartzelonako Montmelón. Hurrengo lasterketak urriaren 7an eta 8an jokatu dira, Alcañizen, eta azkena azaroaren 19an, Valentzian.

Ererikoari aurre egin dio

Kawasaki Z 900 motor berria puntuan jartzeko lan ona egiten ari da irurtzundarra. Albaceteko lehendabiziko bi probetan hasierako parrillan bigarren postutik ateratzea lortu zuen. Lehendabiziko lasterketan laugarrena sailkatu zen Olias eta bigarrenean, hirugarren postua lortzeko borrokan ari zela, erorikoa izan eta gero, proba utzi behar izan zuen. Lesionatu egin zen, fisura bat sorbalduan, eta

ordutik errekupe ratze lanetan ibili da, handik hilabete t´erdira hirugarren proba baitzegoen jokoan. Makina bat ariketa egin behar izan zituen pilotu irurtzundarrak sorbaldari mugikortasuna emateko. Eta nola edo hala, ekainaren 18an Montmelóko lasterketan lehiatu zen.

Montmelón, hasierako parrillatik 3. postuan atera zen Olias. Sekulako berotzarrarekin jokatu zen lasterketa eta nahiz eta sorbalda minberatua izan, hirugarren postuagatik gogor borrokatu zen irurtzundarra eta azkenean podiuma zapatzea lortu zuen, hirugarrena sailkatu baitzen, merito handiz. “Hasierako helburua lasterketan parte hartzea zen, sorbalduan fisura izan eta gero, errekupe ratzen ibili naizelako. Lasterketa bukatzea zen hurrengo asmoa; horregatik, podiuma egin ahal izateagatik oso kontentu nago” adierazi zuen Montmelóko zirkuituko prentsaurrekoan.

Sailkapen orokorrean Raul Martinez da liderra (65 puntu), eta Juanma Olias seigarrena da, 29 punturekin. Hurrengo probak urriaren jokaturako dira, Alcañizen.

Sakana Patin Antsoainen

IRRISTAKETA Ekainaren 10ean 8. Gazte Berriak Trofeoa jokatu zen, udako oporren aurreko azken proba. Sakana Patin Iristaketakoak bikain ibili ziren. Asier Galarza 3.a sailkatu zen minietan, Jon Urkizar 3.aurrebenjaminetan, Iratxe Lapuente 2.a benjaminetan, Oscar Zamarron entrenatzailea 2.a absolutuan eta Iñigo Lapuente txapeliduna herri lasterketan.



SAKANA PATIN IRRISTAKETA TALDEA



ESPACIOBIKER

Irurtzun, Espaciobaker topaleku

MOTOZIKLISMOA Espacio Biker Custom Club Capitulo Madre moto gidari taldekoek topaketa egin zuten larunbatean Irurtzunen. Motorrekin buelta bat eman eta gero, Machainen bildu ziren bazkaltzera. Arratsaldean, kontzertua, zozketak eta jokoak izan zituzten eta nahi izan zutenek afaria eta disko-festaz gozatu zuten Plazaola jatetxean.

non
erabili

TEXARTU

IRUÑEA

Eskaintza kanpainaren arabera.

CLINKER

OLAZI

Menu bereziarekin txupitua doan.

SORKUNDE HARATEGIA

ALTSASU

50 €ko erosketetan etxeko produktua doan

BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.



Josu Etxeberria, pozaren-pozez, eskuak gora helmuga zeharkatzerakoan. UTZITAKOA

Josu Etxeberria Gipuzkoako Itzuliko lehen urteko txapelduna

TXIRRINDULARITZA Sailkapen orokorrean laugarrena sailkatu da, baina lehen urteko juniorretan lehena

Astelehenean despeditu zen juniorren mailako Gipuzkoako Itzulia. Probak lau jardunaldi izan zituen guztira, aurretikoa eta 3 etapa. Igandean jokaturako bigarren etapako trofeoa Sakanara etorri zen, Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberria gailendu baitzen, helmugara bakarrik helduta, nagusitasun osoz. Erakustaldi bikaina eman zuen iturmendiarrak. Astelehenean hirugarren eta azken etapa jokatu zen Zarautzen eta Limousin Kartoiak-Oriako taldeko Unai Iribar gailendu zen esprintean.

Etxeberria 4.a eta Lasa 9.a

Elproex-Iturriberro taldeko Oier Lazkano izan da Gipuzkoako Itzuliko txapeldun handia (06:38:12). Gure txirrindulariek lan bikaina egin zuten. Josu Etxeberria laugarrena sailkatu zen sailkapen orokorrean, podiumera igotzear, 2:50era. Burunda klubeko Quesos Albenizko Ailetz Lasa bederatzigarrena sailkatu zen, 4:22ra eta bere taldekide Iñigo Fernandez 12.a, 5:12ra. Intersport Irabiako Beñat Etxezarreta 40. postuan sailkatu zen, 13:39ra, eta Quesos Albenizko Juan Riaño 54.a, 21:57ra.

Baina gure mutilak ez ziren esku hutsik etorri. Josu Etxeberriak lehen urteko juniorren txapelketa irabazi zuen eta Ailetz Lasa hirugarrena sailkatu zen. Eta taldekako sailkapenean Quesos Albeniz zazpigarren talde onena izan zen.

Kadeteak: Igor Arrieta zortzigarrena eta Iker Mintegi bederatzigarrena Agurainen

Igandean Gaztetxoak Torneoraiko baliagarria zen kadeteen mailako lasterketa jokatu zen Agurainen, XVII. San Juan Saria. Esprintean erabaki zen lasterketa eta Gaurisa taldeko Unai Atutxa gailendu zen (1:27:24). Txirrindulari sakandarrek lan bikaina egin zuten. Intersport Irabiako Igor Arrieta uhartearra zortzigarrena sailkatu zen eta Quesos Albenizko Iker Mintegi bederatzigarrena. Aitor Alberdi (I.I.) 17.a sartu zen, Urko Gorriti (I.I.) 44.a eta Unai Aznar (Q.A.) 58.a. Beste behin, puntan ibili ziren gure txirrindulariak.

Txikienak Tafallan

Eskola mailako taldeek, Burunda eta Aralar klubak tartean, larunbatean proba izan zuten Tafallan.

ARETO FUTBOLA II. Futsal Irurtzun campusa antolatu dute

Areto futbola gustuko duten neska-mutikoeke euren zaletasunaz gozatzeko aukera izango dute uda honetan, II. Futsal Irurtzun campusa antolatu baitute garilerako.

Garilaren 24tik 28ra gauzatu da II. Futsal Irurtzun areto futbol campusa. 5 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoeke har dezakete parte. Bost eguneko areto futboleko formazioa jasoko dute, goizeko 9:30etik 16:30era, eta, horretaz aparte, makina bat sorpresa izanen dituzte. Euren monitoreak Osasuna Xotako Dani eta Roberto jokalaria, Imanol Arregi entrenatzailea-arendako ezinbestekoak direnak, Lauburu Ibarra taldeko Javi jokalaria eta Bodegas Juan Gil Jumilla taldean dabilen Igor jokalaria izango dira. Guztiak puntako profesionalak dira, aktibo dauden jokalaria.

Garilaren 17ra arte

Izena ematea zabalik dago garilaren 7ra arte (120 euro). Ondoko telefonoetara hots egin behar da izena emateko edo bestelako informazioa jasotzeko: 689 45 16 77 edo 649 09 23 46.

Areto futboleko trebakuntza jasotzeaz gain, matrikulazioaren barruan daude gosariak eta bazkariak, ekipazioak, erantzunkizun zibileko aseguru eta beste.



Gorkak eta Iñigok ederki gozatu zuten Valentziako esperientziarekin. UTZITAKOA

Sakandarrak Valentziako Bestcycling erronkan

SPINNING Munduko Spinning Topaketarik handienean egon dira bost sakandar, 1.100 kirolari elkarrekin


Asteburuan Bestcycling Erronka jokatu zen Valentzian, antolatzaileek diotenez, mundu mailan antolatzen den Indoor Txirrindularitza edo Spinning topaketarik handiena. Topaketa erraldoi honetan 1.100 pertonek hartu zuten parte, tartean bost sakandarrek: Iñigo Palomok, Iosu Palomok, Iñaki Amadok, Gorka Paskuak eta Sarai Manjonek. Esperientzia bikaina izan zen guztiendako.

"Spinning topaketarik handiena da Valentziakoa, 1.100 pertsona egon gara. Bostak joan gara elkarrekin, bizkaitar ba-

tekin batera, eta oso ongi pasadugu" azaldu digu Gorka Paskua monitoreak. Eguneratzea, hori izan da Valentzian egoteko arrazoietako bat. "Iñigo, Iosu, Iñaki eta ni spinning monitoreak gara. Gure ustez Bestcycling-eko monitoreak Espainiako onenak dira eta asko ikasi dugu erronka honetan. Badakizu, monitore garen aldetik egunean egon behar dugu eta Valentziakoa oso ongi etorri zaigu horretarako, ideia berriak hartzeko. Primeran egon gara eta oso esperientzia ona izan da" gaineratu du Zelandi kiroldegiko monitoreak.

Erbitiren zortzigarrena

TXIRRINDULARITZA Bihar hasiko da Frantziako Tourra. Movistar Team taldean, Imanol Erbiti izango da Nairo Quintana liderraren ezkutari fideletako bat. Bere 8. Tourrari ekingo dio Hiriberrikoak. Jose Luis Arrieta uhartearren eta Chente García Acostaren aginduetara, Quintanako Tourra irabaztea da helburua.



MOVISTAR TEAM

IKER KIROLAK

ALTSASU

50€tik gorako erosketetan, %10eko deskontua hurrengo erosketan.

URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%20ko deskontua kontsultan.

BASOMUTUR

ALTSASU

Menuan eta kartan %6ko deskontua.

BILTOKI TABERNA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doan. Karta menuan, kopa doan.



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 30

ETXARRI ARANATZ

Aiton-amonak hezitzaile gisa nola aritu hitzaldia emanen du Carmen Nieto hezitzaileak. *Gure Ametsa jubilatuta elkartearen, 18:30ean.*

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. *Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean, 19:00etan.*

ALTSASU Sakana Harrera Harana pertsona migratu eta errefuxiatuen aldeko taldearen bilera. *Gure Etxea eraikinean, 19:00etan.*

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharteko Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku,

Altsasu eta Olaztin. *Plazan, 20:00etan.*

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. *Udaletxe parean, 20:00etan.*

OLATZAGUTIA Tipitako taldearen kontzertua. *Sarasate plazan, 20:00etan.*

IRURTZUN Madama Butterfly Pucciniren operaren emanaldia Madrilgo errege antzokitik. *Kultur etxean, 21:30ean.*

URDIAIN Kantirun. *Herriaren etxean, 22:00etan.*

LARUNBATA 1

ETXARRI ARANATZ Sotresetik Urrielluko aterpera mendi irteera antolatuta du Larrañeta mendi taldeak. *Irurtzundik 5:45ean.*

ALTSASU Altsasutik Azanzara 110 km-ko joan-etorria egingen du zikloturista taldeak. *Baratzeko bide plazako lokomotoratik, 8:00etan.*

ALTSASU Ibilgailu klasikoek laugarren topaketa. *Zumalakarregi plazan, 9:30etik.*

UHARTE ARAKIL Zegamako Orkatz abesbatzak mezan abestuko du eta ondoren, kontzertua eskainiko du. *Aralarko santutegian, 12:00etan.*

IGANDEA 2

IRURTZUN Urrielluko aterpetik Fuente Dera mendi irteera antolatuta du Larrañeta mendi taldeak.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. *Foru plazan, 20:00etan.*



Festetako kartel iragarlea. UTZITAKOIA

Irurtzunek baditu festak iragartzeko kartelak

Irurtzungo kultur kontseiluak aukeratutako epaimahaiak hartu du erabakia eta herriko festen berri emateko kartelak eta egitarauaren azala Iñaki Fernandez Iturmendiren *Bikoteka* lana izanen da. Arrekoarendako da 400 euro saria. Haurren mailako kartela, festa egitarauko kontrazala, Olaia Caballero Dorrnsororen *Gora Irurtzun* lana izanen da. Irurtzundarrak 150 euroko saria eskuratuko du.



M. Butterflyren antzezpena. UTZITAKOIA

Zuzeneko opera emanaldia Irurtzungo kultur etxean

Estreinakoz, zuzeneko opera emanaldia hartuko du Irurtzungo kultur etxeak gaur, 21:30ean. Irurtzundarrei "operara hurbiltzeko eta opera ezagutzeko" modua delako egingen dute emanaldia, Patxi Mikeo kultur teknikariak azaldu digunez. Giacomo Pucciniren *Madama Butterfly* opera ikusteko eta entzuteko aukera izanen da Madrilgo Real antzokitik zuzenean egindako emanaldiaren bidez.

ZORION AGURRAK



Irati
ZORIONAK Irati!!! Eta muxu haundi haundi bat etxeko guztien partetik. Muuaa!



Oihan
Zorionak Oihan! Igandean 8 urte bete zenituen. Ongi pasa eta muxu pottolo bat. Egoitz, aita eta amaren partez.



Oihan
Zorionak maitia! Ongi pasa zure eguna. Mila muxu Aguraingo eta Arbizuko familiaren partez.



Ainhoa
Primeran pasa San Pedro egunean, zure urtebetetzean!! Mario, Amaia, zure iloba Amets eta amatxoren partez. Muxu pila bat, guapetona!

INKESTA



Jaibus zerbitzuaz zein iritzi duzu?

BIKAINA DA	3	%9.68
ONA DA	9	%29.03
HOBETU BEHARRA DU	14	%45.16
ESKASA DA	5	%16.13



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarras.com
www.dekovenavarras.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK
ERRENTAN**Pisua alokagai Etxarri Aranzaten. 3 logela eta igogailua.** Tel 651 81 12 30.**Etxe bat alokatzen da baratzarekin Bakaikun.** 690 34 39 78 telefonora hots egin.

IRAKASKUNTZA

KLASEAK EMAN

Matematika eta fisika klase partikularrak ematen ditu. Tel 650 296 449.

OHARRAK

Otaiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpinak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.**Kiromasajea eta Drenaje linfatikoa doan ematen dira.** Tel 678 80 37 34.**Eplegarratasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua.** Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzanendako aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.**Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu,** urtean 12 euro

edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago: amigosejosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosejosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cedema-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 5 6 70 10, sakana@cedema.es edo sakana.admon@cedema.es**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pabxi) telefonoetara hots egin dezatela.**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaldu eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>.**Euskaldun bat euro bat.** Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com.**Euskonews ekonomiki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

OPARITUTAKOAK

Arratoi txakurkumeak oparitzen dira. Tel 678 80 37 34.

SALDU

ANIMALIAK

Presarenario-dogo canario arrazako txakurkumeak salgai. Parasi-toak hilda, txertoak eta mikrotxipa jarrita. Oso izaera ona. Tel 657 906 085.www.iragarkilaburak.com

JAIOTZAK / EZKONTZAK / HERIOTZAK

JAIOTZAK

- **Mairu Nuñez Gurutzarri,** ekainaren 21ean Lizarragan.
- **Antxon Azpiroz Arakama,** ekainaren 25ean Altsasun.

EZKONTZAK

- **Eneko Larrion Senar eta Nerea Gartiandia Ormaetxea,** ekainaren 16an Altsasun.
- **Raul Mendoza Paredes eta Maite Obregozo Bereau,** ekainaren 17an Altsasun.
- **Patxi Flores Lazkoz eta Ana Balda San Juan,** ekainaren 26an Irurtzunen.

HERIOTZAK

- **Milagros Arnaiz Espinosa,** ekainaren 21ean Altsasun.
- **Aurora Ballarin Ibarreta,** ekainaren 23an Altsasun.
- **Simón Hernan Janariz,** ekainaren 24an Unanu-Lizarragan.
- **Rafael Riestra Carriles,** ekainaren 26an Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..



ESKELAK

URTEURRENA

M^a Teresa Urdanoz Goñi

I. urteurrena



Uda iritsi da eta zuk utzitako haziak loratu dira berriro ere, datozen urteetan egingen duten bezala. Betirako gure oroimenean.

Arbizu, 2017ko uztailak 2.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskkelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

Beti
gure
gogoa...

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioan.
948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUSWWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK


- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik.
ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hirurak 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 30




Zerua aurreko egunetan baino lainotuago. Zaparradak botako ditu, mendebaldeko haizea ibiliko da.

Larunbata, 1




Temperaturak gora egingo badu ere, zaparradekin jarraituko dugu. Haizea ipar-mendebaldetik

Igandea, 2



Iganderako, temperatura zertxobait igoko da. Hodeiak ez dira hain ugariak izango. Zaparradak eten egingo dira.

Astelehena, 3



Astelehenean aldiz, egun eguzkitsua eta temperatura igoera, apenas ikusiko dira hodeiak.

40 aniversario
TANATORIOS IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

Aralarko aingeruaren irudia zaharberritu dute

Konponketa "sakona" egin diote, azken 260 urteetan garrantzitsuena. Urrez xaflatutako zilarrezko gurutze, jantzi, hegal eta oinarri berriak ditu irudiak. Barruan egurrezko hegalak santutegian zeuden beste batzuegatik ordezkatu dituzte

UHARTE ARAKIL

Urreztatzerik gabe toki batzuetan, irudia aurrerantz botata, torlojuak desagertuak... Konponketa premia zuen Aralarko aingeruaren irudiak eta herritar batek emandako 20.000 euroko donazioarekin egin dira lanak.

Aralarko santutegiko kapilau Mikel Gartzandia, gotzaindegiko arte teknikaria eta Nafarroako Gobernuko Erregistro, Ondasun Higigarri eta Arkeologia ataleko arduradun Alicia Ancho joan den urteko ilbeltzaren 15ean elkartu ziren. "Prozesu luze eta konplexu" baten hasiera izan zen. Joan den urteko ilbeltza eta martxoa bitartean diziplina anitzeko ikerketa baterako datuak jaso zituzten.

Ikerketa hori Nafarroako Gobernuaren laborategian egin zen eta aingeruaren irudia osatzen duten elementu guztiak sakon aztertzeko baliatu zuten aukera. Artus enpresak museoan behin-behineko tailerra jarri zuen eta irudiak beharko zituen tratamenduak zein izanen lirakeen aztertzeko aurrelanak 2016ko ilbeltzaren 21ean hasi zituen.

Lanak

Optika ekipoaren bidez zilarren urre estaldura kalte handiak zituela pieza erabiltzen den tokietan: gurutzaren masta eta aingeruaren jantziaren beheko partea. Zilarra geruza ere hauskorra zen, pitzadura eta arrakalak zituen hainbatetan leundu eta urreztatu ondoren.

Zilar geruzari lodiera handiago emateko eta hobe urreztatzeke 1996an kobrea sartu zuten irudia. Baina erabileragatik kobrea erdoildu egin da, pieza "itoz". Ondorioz, urre geruza jaso eta zilarra hondatu du.

Hasieran irudia zaharberritzeko berriro urreztatzearekin nahikoa zela pentsatu zuten, baina ikerketek azaldu zuten urreztatze berriak zilarra eta



Aralarko aingeruaren zaharberritzean zerikusia izan duen taldea. UTZITAKOA

IRUDIARI KENDUTAKO ZATIAK SANTUTEGIAN IKUSGAI JARRIKO DITUZTE ETORKIZUNEAN

kobrea kaltetuko zituela. Azken hori kentzea metala sakon leuntzea leharke. Azkenik, gurutzaren, jantziaren eta hegaleen errepika egitea proposatu zuten. Piezak behar bezala egokitzeko eta 3 dimentsiotan digitalizatzeke guztiz desmuntatu zuten irudia eta diziplina ugarietako kidez osatutako talde handi batek aztertu zuen.

Jantziaren metalografia azterketak agerian utzi du 20 interbentzio baino gehiago izan dituela: zilar eta urre purutasun desberdinak, kobrea presentzia, soldadurak eta konponketak. Egurraren azterketak irudi barruan bost motatakoak daudela agerian utzi zuen: altzifrea (Lignum Crucis), intxaurra, ezkia, pagoa eta haritza.

TAC-aren bidez irudiaren sekretuak agerian utzi nahi izan zituzten. Haren bidez barruan

metalezko kapsula bat zegoela ikusi zuten. Haren barruan lumaz eta gaztelaniaz idatzitako XIX. mendeko idatziak (otoitza laburrak, esker onekoak, eskararak, egindako konponketak), konponketen ondoren gelditutako egur zatiak eta urrezko kabuxoian zegoen harribitxi bat zeuden. Bestalde, erretxinazko 3D kopiaren gainean landu dituzte irudiaren jantzi berriak.

Irudiaz

Egun ezagutzen dugun Aralarko aingeruaren irudia 1753koa da, Jose de Yabar zilargile iruindarrak egina. Ordura arte aingeruaren irudia eta Jesus gurutziatzatu zuten gurutzeko erlikia, Lignum Crucis, bi ziren eta zilargileak irudi bakarrean batu zituen. Nafarroako Gobernuak Kultur Intereseko Ondare izendatu zuen 2009ko irailaren 7an.

Ikerketak irudiaren garapena agerian utzi du. Ikerketaren sustatzaileek azaldu dutenez, Aralarko santutegiaren inguruko guztia ikertzen segituko dute: arria, esmalte aurrealdea, boli kutxa eta abar. Hori eta aingeruaren zaharberritzea liburua batean jasoko dute.



Juan Karlos Lopez-Mugartza bertaratutakoei eskerrak ematen. UTZITAKOA

Lopez-Mugartzarendako Iruña Hiria Nazioarteko Poesia Saria

Iruñeko Udalak eta Nafar Ateneoak antolatutako sariketa irabazi du Guaixeko kolaboratzaile denak

ALTSASU

Joan den astean, aldameneko orrian argitaratutako artikuluan, Juan Karlos Lopez-Mugartzak diasporako altsasuar gisa definitu zuen bere burua. Berak irabazi du Iruña Hiria Nazioarteko XI. Poesia Lehiaketako euskarazko saila. Sariketara bederatzi lan aurkeztu ziren: 2 Iruñetik; 4, Gipuzkoatik; 2, Bizkaitik; eta 1, Huelvatik.

Lopez-Mugartzak *Bihotz hauskorak osatu eta portu handira iritsi dira* poema-bildumarekin eskuratu du saria. "Inongo neurririk" ez duten 50 bat bertso osatzen dute "bihotza hautsia duen pertsona baten barne bidaia" kontatzen duen sorta. Altsasuarrak azaldu digunez, "bidaia noraezean hasten da, baina minak ez du beti irauten eta hautsitako bihotza osatzen hasten da, beste bihotz hauskor batzuk ezagutzen ditu (denok gara bihotz hauskorrekoak) eta bidaiaren azken unean -bukarra zoriontsua- portu handi batera iristen da bere belaontzian... goian ikurrina eta guzti airean duela". Olerkariak azaldu duenez, "barnealdeko olerkiak Sakanan kokatzen dira era inplizituan eta kostaldekoak Bermeen era esplizituan".

Gaiatz galdetuta, Lopez-Mugartzak bizi izandako "egoera mingarri bat" aipatu digu; "hasi nintzen bidaia hori egiten... nahi gabe... beharrak bultzatuta... Baina ongi atera zen eta orain garaipen horri omenalditxo bat egin nahi izan diot. Mundua ez

da akabatzen zerbait gaizki ateratzen denean; aitzitik, bada aukera beste gauza berri batzuk ezagutzeko. Beti bide beretik baldin bagoaz oso lasai eta pozik bizi gara... baina bide asko jorratu behar dituzunean, deserosoa da lo egiteko beharra izatea hainbat lekutan, edo izarren azpian, baina gero asko ikasten da eta ez zara damutzen".

Lanaz

Epaimahaiak aitortu dio "euskara zaindua, hitz-jokoak, eta poesia bisualari egiten dion ekarpena, berrikuntza bat dena". Neurririk gabeko bertsoekin batera kaligrama batzuk (hitzez osatutako irudiak), "tximeletak bezala paperean hegan egiten dabilen lerro batzuk, uretan nabigatzen ari diren beste batzuk" tartekatuta dituela azaldu digu. "Gehienak ohiko olerkiak dira. Hau ez da kaligramen kutxa bat, baina bai erabiltzen ditut tresna poetiko bezala. Azken batean gaur egun denok bideoekin eta irudiekin, alegia, testu bisualekin erlazio gehiago daukagu, testu idatziekin baino".

Sortze prozesuaz esan digu "zerbait kontatzeko gogoia delako" hasten dela ordenagailuan idazten. "Ez dut idazten gaizki nagoelako edo bakarrik nagoelako, literatura eta hitzekin arte egin nahi dudalako; nire iritziak, nire beldurrak eta nire irakaspenak edo aholkuak emanez".

Saria lastailean jasoko du, Denonartean argitaletxeek liburua argitaratzen duen hilean.

Bakaikuko festak iragartzeko, kartel lehiaketa

Santiagoren omenezko festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du Bakaikuko Udalak. Bi maila ditu: 7 urte artekoa eta 14 urte artekoa. Edozein teknika erabilia egin ditzakete kartelak, beti ere, irudi bertikala izan behar dela ahaztu gabe. Gainera, lanek, ezinbestean, honako testua izan behar dute: *Bakaikuko festak 2017ko uztailaren 21etik 25era*. Lehiaketarako lanak udaletxean gaur arte aurkeztu daitezke, plika sistema erabiliz. Kartel irabazleak festetako egitarauko azalean eta kontra-azalean agertuko dira. Gainera, lehiaketara aurkeztutako lan guztiekin erakusketa eginen da festetan.

Etxepare sariak Arraroa albuma argitaratuko du udazkenean

Ainara Azpiazu Aduriz eta Paula Estevez Del Diego egileen lana aukeratu du epaimahaiak 26 lanen artean

SAKANA Nafarroako 20 toki-entitatearen euskara zerbitzuek, Sakanakoa barne, antolatzen dute Etxepare literatura sari esanguratsua, euskaraz sortutako albumen produkzioa sustatzeko helburuz. 11. edizioko saria (5.000 eurokoa, egile eskubideen aurrerapen moduan) Ainara Azpiazu Aduriz eta Paula Estevez Del Diego egileek irabazi dute.

Haiek aurkeztutako albumean haur batek gaurko gizartearen aniztasunari erreparatzen dio bere etxeko leihotik. Neskatoak

hamabi egoera bitxi aurkezten dizkigu eta modu simple bezain grafikoan egiten du auzokide bakoitzaren argazkia, biñeta gisa, topikoei ihesi, eta benetako errealitatea agerian utziz.

Yolanda Arrietak (idazlea), Maite Gurrutzagak (ilustratzailea) eta Asun Agirianok (album ilustratua aditua) osatutako epaimahaiak *Arraroa* albumaz honakoa esan du: "egileek modu bikainean elkartu dituzte hitza eta irudia. Testuaren bidez egoerak aurkeztu ahala, irudien bidez egoera horiek bizia hartzen



Sarituak: Paula Estevez Del Diego eta Ainara Azpiazu Aduriz. UTZITAKOIA

dute, umorea lagun eta detaileei arreta jarrita. Hizkuntza biek originaltasuna, indarra eta askatasuna erakusten dute. Kolore biziek, berriz, areagotu baino ez dute egiten lanari darion bizipoza". Gaineratu dute albuma

"lan ausarta eta grafikoki interesgarria" dela, testua eta irudia elkar osatzen dutela nabarmenduz. Albuma "estereotipoak alboratzeko proposamen umoretsua" da, "aldi berean, gogoeta egiteko aukera helarazten du".

BAZTERRETIK

MAR GONZALEZ RUIZ DE LARRAMENDI

San Juan gaua

Eguzkia jabe dela heltzen naiz hondartzara eta bazterrean ez dago lekuri. Itsasotik urrun kokatzen naiz eta ezin dut olatuen doinua aditu. Baina orain eguzkia eraikinatarantz erortzen hasia da, eta noizean behin hodei leunek estaltzen dute. Egurdiko sua baretu zaigu, eta hondarretan etzanda, epeltasun nekatu batek inguratzen nau. Badirudi ez zaigula guztioi heltzen, nire ondoan zeuden askok alde egiteko premia sentitu dutelako. Eta gutxinaka badoaz, (...) zarata erortzen da, eta itsasoa entzun daiteke.

Isiltasun honetara ohitzean elkarriketa etenak zurrumurru ulergaitzetik bereizten zaizkit. Nire parean dagoen emakumea ingelesez mintzo da bere alabarekin eta ipuin mitiko eran azaltzen dio gaur ospatuko den San Juan gaua. Jentilen ohituretara begira dago.

(...) hurbila egiten zait esaten duen dena. Badirudi izenek eta paisaiek soilik bereizten dituztela gure sanjuanen bizipenak, eta bere ipuin mitikoen parean, nire elezaharrak ipini ditzaket.

Horregatik agian, edo bera ahotsaren epeltasunagatik, itsasoaz ahaztu eta haren hitzetan geratu naiz luze. Eta bere esaldietan, nire plazatako suak piztu eta dantzariak hurbildu dira, eta horien parean, emakumearen paisaietako jentil-harriak ikusi ditut lehen argiaren zain. Bakarrik begiak irekiztean sumatu dut Bartzelonako hondartza berriro jendez betetzen: eta oharkabean inguratu naute, eta guztiek poltsak, argiak eta botilak ekarri dituzte. Ama eta alaba ingelesak ez daude inon, eta musika ezberdinek estali digute airea. Baina alde egitekotan nagoela, hainbat lagunek deitu naute, bidean daudela esanez, eta garagardo pare bat edango ditugula hondartzan. Eta gaua igaro zaigu jada, baina itsaso parean ez da surik egon.

Eta lainoagatik badirudi sua egon behar duela nonbait, baina ez dago, eta laino artean galduta gabilta, edozein tokikoa edo inongoa den musika ozenaren azpian. Eta kea izan badaukagu, baina diskoteka eta tabernetatik dator.

Etixerantz abiatzeko ordua jada, baino ez dugu suaren gainetik salto egin, ez egunsentia ikusi. Inork ez dio eguzkiari indarrarik bidali gaurtik aurrera datorren ahultzeari aurre egiteko. Baina gu bagoaz, eguzkia aterako denean erdizka ikusten diren zaborrak agerian geratuko direlako.

Oheratzean, Inglaterrako Stonehenge-ko egunsenti gozoarekin egiten dut amets. Paregabea dirudi, baina jendez betetzen doa pixkanaka. Eta ez dago esertzeko lekuri, eta denek bozgorailuak eta botilak ekartzen dituzte eskuetan, eta sarrera ordaindu behar da egunaren argia ikusteko.

Zorionez ama eta alaba ingelesak ez daude, urrun baizik, auzo bakarti eta bare bateko plazan, suari begira.

Eta sua itzaltzen den neurrian behatz eta oinetatik sustraiak hazten zaizkie; eta ezin ditugu ikusi, baina bihotzean sustraiak dituzte ere. Eguzkia atera baino lehen, erraz hartuko dute lo, hondartzan sortu dugun errorrik gabeko ospakizunetik salbu.



Tipitako, zazpikote iruindarra. UTZITAKOIA

Tipitako, rock-etik runba flamenkora arteko nahasketa

Nafarroako Gobernuaren Kultur programaren barruan, gaur, 20:00etan, Olatzagutiko Sarasate plazan ariko da

OLATZAGUTIA

Sonido de Bolsillo diskoa, hirugarrena, aurkeztera etorriko da Tipitako. Lan berriaren taldeak estilo-sorta zabala eskaintzen du, rock musikatik runba flamenkora joanda, betiere kantu guztietan Tipitakoren soinu berezia faktore komuna izanik.

Konposizio-prozesua entseguen eta kontzertuen artean sortu zen; eta, kantuak abiarazteko uneen, erabakigarriak izan ziren gustura emandako tarreak eta kide bakoitzaren eragin zabala tema bakoitza musikalki zehazteko. Konposatu ahala, gainezka

egiten zuten kantu horiek. Canteca de Macaoko Chiki Loraren kolaborazioa izan dute kantu batean.

Kultur programak, arte eskaintzarekin batera tokiko turismo baliabideak ezagutarazi nahi ditu. Horregatik, hala nahi dutenek, Urdaingo Sarabe gaztandegian eginen den mami tailerlean eta esnekien tailerlean parte hartzeko aukera izanen dute. 17:00etatik 18:30era izanen da. Helduendako 12 euro, 5 hurrendako, eta erreserbak 699 938 356 telefonoan edo sarabetxokoa@gmail.com epostan.



Xochitl Karasatorre eta Aitor Agirrezabala.

"6.718 boluntario. Onak dira aurreikuspenak"

Hatortxu Rock 20 musika jaialdia hasteko lau aste falta direnean eta muntatze lanen hasieraren bezperan bozeramaileekin elkartu gara. Jaialdirako behar diren boluntarioez, jaialdiaz beraz eta antolakuntzako martxaz azalpenak eman dizkigute

Alfredo Alvaro Igoa LAKUNTZA

1 Boluntarioak antolatutako bi musika jaialdi besterik ez dituzte ezagutzen: Euskal Herria Zuzenean eta Hatortxu Rock. Zuek?

Xochitl. Ez.

Aitor. Nik ezta ere. Euskal Herrian musika jaialdi txiki asko antolatu izan dira, baina tamaina honetakoak, behintzat ez.

2 Zergatik boluntarioekin?

X. Hasteko, gure herrian auzolana izan dela gure altxorra. Aspaldidanik izan dugun gure altxorra. Gainera, jaialdiaren helburua kontutan hartu beharko dugu: senideei dispertsioaren zama arintzea. Jendeak helburu horren atzean dauden nahiak lagundu nahi izaten du. Horregatik, auzola-

naren bidez egiten dugu. Denak boluntarioak gara.

3 Boluntarioekin antolatzen 19 aldiko esperientzia duzue, ezta?

A. Hatortxu Rock, ziurrenik, Euskal Herriko jaialdi handienetako batean bihurtu da. Dena auzolanari esker. Gutzika-gutzika jende askok egin duen lanari esker.

4 Zenbat jende behar da 4 eguneko jaialdi bat antolatzeko?

X. Duela gutxi atera genuen zenbakia: 6.718. Hori jende asko da. Orain arte, egun bakarrekoa denean, 600 inguru behar dira.

A. Bai. Euskal Herriak sekula ezagutu duen elkartasun jaialdirik handiena izanen da. Hatortxu arrunt batean lan egiten dugun gehienak nafarrak gara. Oraingo honetan deialdia nazio mailakoa izaten ari da.

Jendea Euskal Herri guztitik etorriko da txandak egitera. Horrela bakarrik lortuko dugu kopuru hori. Lan horretan ari gara. Egia esan hasiera-hasieratik jendearen erantzuna oso ona izan da. Jendea izena ematen eta harremanetan jartzen ari da. Bai web orriaren, bai sare sozialen, bai ingurukoren baten bidez. Zerbaki hori lortzeko bidean gaudela uste dugu. Erroka handia da, baina ari gara. Aurreikuspen onak ditugu eta zerbaki hori lortzeko moduan egonen gara.

X. Bihar muntaiarekin hasiko gara. Beraz, animatzeko deialdia egiten dugu (mantenua eskaintzen dute). Horretaz aparte, egonen dira sukualdea, barra, kontzertuan bertan, garbiketara, segurtasuna, desmuntaiak... (6 orduko txandak).

5 Opor garaian antolatzean, aukera edo traba da?

X. Bai, guretzako ere, lan pila bat dugu. Eta, aparte, beste gauza batzuk ditugu, baina, tira. Denen artean, azkenean, moldatu gaitezke, tartetxoren bat atera eta...

A. Horretaz aparte, oporretarako plana izan daiteke Hatortxu. Ez duzu zergatik oporretara ez dakit nora joan beharrik.

6 Jaialdirako 4 aste falta dira. Zer moduz antolakuntza?

X. Ongi. Pixka bat urduri. Georoz eta lan gehiago dago. Baina gogotsu eta ilusio handiarekin.

7 Sanferminak antolakuntzan etena izanen dira, edo ez?

A. Horregatik, hasiko gara bihurtik lanean. Muntaiaren garaia ibiltzeko. Egun horietan ulertzen dugulako erritmoa moteldu daitekeela.

8 Musika jaialdia, baina igandekoa, publiko guztiari zuzenduta, ezta?

X. Bai, familia guztiarendako zabaldu nahi dugu formatua.

9 Ikastetxeek antolatzen duten festen antza du igandeko horrek, ezta?

A. Bai, formatua horren antzekoa izan daiteke. Igandean dispertsioaren kontrako ekitaldi nazionala izanen da eta jendetsua izatea nahi dugu.

Mahai gainean benetako kolpe bat izatea nahi dugu. Eta, horretarako deialdia askoz ere zabalagoa izan behar zuela ulertzen genuen. Hori da nahi duguna: familiak haur txikiekin etortzea, jende heldua...

10 Zein da erroka?

X. Dispertsioarekin bukatzea da gure helburu nagusia. Guk musikaren bidez pauso bat eman nahi dugu.

A. Uste dugulako badela garaia gatazka armatuaren ondorio horiek gainditu eta, benetan, dispertsioarekin bukatzeko.

11 Hasi zarete eguraldi iragarpenak begiratzen?

A. Egia esan, ni bai.

Osorik: www.guaixe.eus

Bazkide sarituak

- Juan Fco Lizarraga Pueyo (Altsasu)
- Ainhoa Gurutxarri Senar (Lizarraga)
- M^a Carmen Gamboa Artieda (Etxarri Aranatz)
- Eneka Maiz Ulaier (Etxarri Aranatz)

GARILEKO SARIAK:

1. SARIA:

EKAINBERRI: 2 SARRERA
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN
 AQUARIUM: SARRERA BAT

2., 3. ETA 4. SARIA:

ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN
 AQUARIUM: SARRERA BAT



CAMPING
 ARTAZA

Ekain berri

Kaip

lacturale

AQUARIUM

GAZTEZULO